

Juan Ignazio Iztueta (1767-1845).  
*Bizarra urdina, baina txit arina*

Juan Ignacio Iztueta (1767-1845).  
*The silver beard, but lightly so*

JOSE IGNAZIO ANSORENA MINER

Donostiako Udalaren txistulari taldeko zuzendaria  
JIgnazio\_Ansorena@donostia.eus

*Recibido: octubre de 2019. Aceptado: abril de 2020*

*Lagun hauei zor dizkiet datuak, aholkuak eta zuzenketak.  
Bihotzez, eskerrik asko.*

*Joxan Altuna, Jon Ansorena, Aitor Arozena, Jon Bagüés,  
Sabin Bikandi, Pello Esnal, Tere Irastortza, Iñaki Irigoien,  
Joxemari Otermin.*

**Laburpena:** XVIII. mendearen hondarrak eta XIX.aren hasiera, garai korapilatsuak izan ziren Europan eta Euskal Herrian: eredu ekonomikoaren aldaketa, goseteak, matxinadak, gerrak, kultur eruedetan aldaketa bortitzak... Garaitu horietan bizi izan zen lan honen protagonista, Juan Ignazio Iztueta zaldibitarra. Euskaraz idatzi zuen hainbat lan. *Gipuzkoako dantza gogoangarrien Kondaira edo Historia*, lan nagusiak testigantza balio neurtezina du, euskal dantzen aldetik eta orduko gizartearen egunerokoaren inguruan, baina maiz gaizki interpretatua izan da.

Artikulu honetan ahalegina egiten da ulermen horrek behar dituen nagusiak argitzeko. Eta horrekin batera egungo Gipuzkoako dantza zaharren bilakaera eta tradizioa hobeto ezagutzeko aukera ematen digu.

**Hitz gakoak:** Iztueta, dantza, dantzari, danbolin, Kontxesi, euskara, matxinada, soinu zahar, Balandra, bizarra urdina.

**Abstract:** The late 18th and early 19th centuries were turbulent times in Europe and the Basque Country: changes in the economic system, starvation, revolts, wars and violent cultural upheavals... The creator of this work, Juan Ignacio Iztueta, lived during this turbulent period. He was from Zaldibia, in the province of Gipuzkoa. He authored a diverse *oeuvre* in Basque, of which a principal example: *Gipuzkoako dantza gogoangarrien Kondaira edo Historia* (*A history of memorable dances of Gipuzkoa*) is of immeasurable value, due to

the information it renders on the ancient dances of Gipuzkoa and in kind, a glimpse into everyday life of society during this period which unfortunately has often been misinterpreted.

This rendering has set out to reestablish the key issues in order to obtain a better understanding of the aforementioned issues. It also now offers us an opportunity to understand the tradition and evolution of these historic Gipuzkoan dances.

**Keywords:** Iztueta, dance, dancer, drum, Kontxesi, euskara, basque, *machinada*, old melody, *Balandra*, white beard, silver beard, gray beard.

## IZTUETAREN OBRA, SALBUESPEN ETA AURREKARI GARAIKO EUSKAL LITERATURAN

Juan Ignazio Iztueta Etxeberriak hainbat idazlan argitaratu zituen. Balio historikoagatik da aipagarria horietako bat: *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia beren soinu zahar eta hitz neurtu edo bertsoakin*<sup>1</sup>. Lehen aldiz 1824an publikatu zen eta 1827<sup>2</sup>an gehitu zitzaion bilduma osagarria: aurrekoan aipatutako dantzen —eta beste batzuen— doinuen partiturak eta hitzak.

Euskal literaturaren alorrean salbuespen-tankera du Iztuetaren lanak; izan ere, XVIII. mendearen amaieran eta XIX.aren hasieran euskaraz argitara ematen ziren lan gehienek gai erlijiosoa zuten. Honek, aldiz, kontu erabat mundutarra darabil, dantza; eta, horren inguruan, suma daiteke garaiko harreman sozialen korapiloa zein konplexua zen eta noraino zegoen nahastua. Horregatik, obraren mamia atseginez eta fundamentuz dastatu ahal izateko, irakurketak egoera horren ildo nagusiak ezagutzea eskatzen du. Trukean, kaleidoskopio antzeko panorama jarriko digu begien aurrean: kolore eta forma desberdinen konbinaketa, etengabe aldagarri. Argiaren aurrean jartzean, pertsonen eta kolektibitateen norabide historikoen aniztasunaren ederra ikusaraziko digu.

## LIBURUAREN LABURPENA

Iztueta saiatu zen gipuzkoarren tradiziozko dantzak biltzen eta era ordenatuan antolatzen. Ahaztuak izateko arriskuan zeudela igarri eta, zuten

<sup>1</sup> Euskal testu eta izenen ortografia eguneratu egin dut. Batzuetan gaztelaniazko izenak koherentziarengatik hizkuntza horretan utzi behar izan ditut. Garrantzizko beste obra bat ere badu: Gipuzkoako Probintziaren Kondaira edo Historia. Iztueta hil ondoren agertu zen eta bere azken egunetan horixe zuen kezka, obra argitaratzea. Ideien mamiaren aldetik biak bide beretik doaz.

<sup>2</sup> Hainbat lekutan argitaratze-urtea 1826 izan zela esaten bada ere, hitzaurrea 1827urtean dago sinatua.

balioaz sinetsita, aurreko garaien indarrera itzuli nahi zituen. *Bilantziko* soinu zaharrari berak egokitutako hitzetan argi azaldu zuen asmoa:

Euskal herrietako soinu ezti  
 izan dana beti guzien gainetik,  
 bilatu det lurpean sartua  
 bai eta ahaztua zeren dan zahartua. Ateratu behar nuke plazara  
 nirekin dantzara, oraindik gauza da.  
 Ikusiko da zein atsegina:  
 bizarra urdina, baina txit arina.

Liburua hasi Santiago de Unzeta Ahalduen nagusi bergararrak gaztelaniaz idatzitako *Aprobación* delako onarpenarekin hasten da. Ondoren dator Jose Ramon de Elorza Azkoitiko erretoreak sinatutakoa, hau ere erdaraz idatzia, goiburu berberarekin. Biak —agintaritza zibila eta erlijiosoaren onarpenak—, garaian ohikoa zenez, goraipamenez josiak daude eta obra zein beharrezkoa eta egokia zen azpimarratzen zuten. Baina bigarrenak, argitara ematea baimentzeko, zuzenketa txikia eskatzen zuen musika eta kantu-bilduman: testu batzuk lizunegiak iruditzen zitzaizkion. Aldatu behar horixe izan zen azken atalaren argitalpena 1827 urte arte atzeratu izanaren arrazoia. Jarraian dator Gipuzkoako *Korregidore*<sup>3</sup> Martín Javier de Muzquizek, Joaquín Ramón de Soraiz<sup>4</sup> eskribauaren aurrean aitortutako *Licencia* edo baimena, zentsuraren azken onespina, alegia. Hori dena beharrezkoa zen liburua arazorik gabe plazaratzeko.

Hortik aurrera, Iztuetak idatzitakoak datoz, denak euskaraz. Aurrenik, Donostia hiriari egindako *Eskaintza* luzea: ziudadea urte gutxi lehenago, 1813an, gerra-setioaren ondorioz errea izan zen, eta arpilaketa jasan zuen. Errautsetatik berreraikitzeko egin zituen merituak aipatzen ditu Iztuetak, baita Gipuzkoako dantzeenganako beti izan zuen aldeko jarrera ere. *Itzaurrea edo prologoa* da hurrengo atala. Honetan euskaldunak Espainiako lehen biztanleak izan ginela ziurtatzen du eta mundu osoa harrituta zegoela gure ohitura, dantza eta hizkuntzarekin; horixe zen garai hartako euskaltzaleen diskurtsorik zabalduena (Madariaga 2008). Hor aipatzen du, era berean, nola Donostiako Udalaren izenean gazte bat joan zitzaion eta proposatu zion dantza zahar guztiak Miserikordiako haurrei eta Pedro Latierro danbolinari irakastea. Eskaera horretatik sortu zen, antza, liburuaren asmoa.

Hitzaurreak adierazten du liburua antolatzeke zuen asmoa: aurrenik, eskolatu gabeko danbolinak eta dantzari zaharrak nolakoak ziren xehatu.

<sup>3</sup> Korregidore: gaztelaniaz, Corregidor, Erregearen ordezeko funtzionarioa. Udal-kontzeju eta Diputazioen gainean botere batzuk zituen eta maiz bakoitzaren ahalmenen inguruko liskarrak izaten zituzten elkarrekin.

<sup>4</sup> Iztuetaren suhia zen, Frantziska Ignazia alabarekin ezkondua.

Bigarren atalean, danbolin berriek nolako desegokikeriak egiten zituzten. Hirugarrenean, bildutako hogeita hamasei dantza zaharrak ikasteko arauak eta aginduak jaso. Nahiz eta aurreko iragarpen honetan aipatu ez, hirugarren atalak bigarren zati bat ere bazuen, non bestelako ohitura zaharrak aipatzen zituen: pilotariak, bertsolaritza, idi-demak, ahari-apustuak, makila-tiratzaileak, saltalariak, txingolariak, makilkariak eta palankariak. Eta laugarrena, musikan jarrita, dantza horien doinuak eta bertsoak paratzeko baliatu nahi zuen. Aurreratu dugunez, azken hau, ordea, zentsuraren aginduak eragindako atzerapenaren ondorioz, bereizita agertu zen hiru urte geroago.

## IZTUETAREN BIOGRAFIAREN DATUAK<sup>5</sup>

### Merkatari-familia

Juan Ignazio Iztueta Etxeberria, Gipuzkoako Goierriko Zaldibia herri txikian<sup>6</sup> jaio zen 1767ko azaroaren 29an, gurasoek aurreko urtean eraikiarazi eta herriko kaskoan zegoen *Iztuetanea* etxean. Bosgarrena zen hamabi semealaben artean. Aitak merkataritza zuen bizibide eta etxe horretan kapagindegia<sup>7</sup> jarri zuen. Kokapen sozial oneko familia zen: Biltzar Nagusiek aitari hidalgotasun-karta onartu zioten, Zaldibiako udaletxeko diruzain aukeratu zuten eta *Diputado del común*<sup>8</sup> ere bai. Aitak hiltzeko tenorean diruak eta propietateak bazituen.

Aitaz gainera, anaia zaharrena, Diego Ignazio, eta koinatu izango zen Jose Antonio Manzisidor ere, merkataritza-kontuetan zebiltzan gure dantzaria oraindik mutil koskorra zenean. Familiak, merkataritzan jarduteko kontu garrantzitsua zela eta, semeak —ez ordea, alabak— idazten eta irakurtzen, baita zenbakiak ere ikastera bultzatu zituen. Juan Ignaziok, beste anaiak bezala, gartzetan nonbait ikasi zuen, agian Lazkaoko Karmeldarren komentuan, Zaldibiako eskolan maisua izan baitzen, «*maestro de primeras letras* » eta, Logroñoko epaiketako agirietan jaso bezala, bere burutapenak, bekatuak (sic) eta abarrak liburuska edo agenda moduko batean idatzita eramateko ohitura zuen (Elósegui 1971: 38).

<sup>5</sup> Atal honetan soilik datu biografiko objektiboak zerrendatzen saiatu naiz, irakurlea ez nahaste arren. Ikerketa-lan desberdinetatik hartutakoak dira (Garmendia 1968 eta 1975. Elósegui 1969, 1971 eta 1976. Ezeizabarrena 1990. Tellechea 1999. Otermin 2014).

<sup>6</sup> Hemezortzi *etxe* (ez eraikin) eta laurogeita hamasei familia besterik ez zuen (Garmendia 1968: 31).

<sup>7</sup> Berez, hitzak kapak egiten diren lekua adierazten du. Esanahi zabalagoa du, baina, ohialtegi edo ehundegia zen. Juan Ignaziori Kapagin txiki izengoitiz ere deitu izan zioten.

<sup>8</sup> Juan Ignazio jaio aurreko urtean, 1766an, Carlos III Erregek sortu zuen kargua zen, burgesiari botere publikoan leku egiteko eta hainbeste arazo sortzen zituen horniduren kontuen kontrola zorrotzasunez eramateko. Matxinaden ondorioz aristokraten gehiegikeriei neurria hartzeko asmatua.

## Lehen ezkontza

1790eko urtearen hasieran, hogeita bi urte zituela, Urnietako Maria Joakina Linzuainekin ezkondu zen. Bost semealaba izan zituzten: Jose Ignazio, Maria Ana, Maria Antonia, Josefa Frantziska eta Jose Manuel. Hauetako bi haurretan hil ziren, 1807ko dokumentuetan ez baitira azaltzen. Hogeita lau urte zituenean komertzio-jardunean aritzen zela konfirmatzen duten agiriak badira: artaldeak edo errotak alokatu, olio eta ardoen hornidurarako emakidak<sup>9</sup> lortu... Dokumentu horietan gorabeherak agertzen dira: batzuetan, lotura komertzialak, diru-kontuak, maileguak; besteetan, zorrak eta desadostasunak. Aita bezala, Juan Ignazio ere ongi hartua izan zen Udaletxean eta *Diputado del común* aukeratua.

Probintzian barrena, baita Euskal Herriko beste eremuetan ere, gelditu gabe ibili zen tratuak zirela eta.

Gorputz gihartsua, beltzarana, ez altua, baina aurpegi ederra zuen, Azpeitiko eskribauak jaso bezala. Merkatari egokia eta hizketa eraginkorraren jabe ere bai. Honegatik, batzuek *Txuri*<sup>10</sup> izengoitiaz deitu izana. Tradiziozko dantzaren eta olgetaren munduan prestijioa izan zuen gaztetatik. Adiskide minak zituen garaiko bertsolaririk onenak, Fernando Amezketarra eta Juan Ignazio Zabala, baita danbolin-jotzaileak eta dantzariak ere. Bera dantzaria zen. Dantza-zaletasun horrek arazoak sortu zizkion maisu izandako garaietan, XVIII. mendeko azken hondarrean: guraso batzuen<sup>11</sup> iritziz, hurrek dantzak ikasteari gogo handiagoa eskaintzen zion letrei baino. 1800 eta 1801 urteen artean, emaztea eta Juan Ignazioren artean ezin eramana sortu zen eta harreman sentimentalak izan zituen Legorretako Ignazia López de Llerenarekin. Emakumea haurdun geratu zen eta, garaiko ezkutuko ohiturei jarraiturik, Iztuetak lagundu zion Balmasedara joaten umea herriko jendearen isilean egin zezan. Haur horren berri gehiagorik ez da inon agertzen.

## Auziak eta espetxea

1797 eta 1801 urteen artean, Zaldibian auzi latz hainbat gertatu —datuek ez dizkigute erabat argitzen— eta herria bitan banatuta gelditu zen. Alde batetik, Etxabetarrak, jauntxoak eta euren aldekoak, Jose Ignazio Etxabe erretorea buru zutela eta, bestetik, kontzejuaren ordezkariak eta jarraitzaileak, horien artean gure Juan Ignazio erpinean agertzen delarik. *Kalbarioeta* bidearen pasaera eskubide publikoak sortu zuen lehen topaketa: erretoreak onartu nahi ez, Udalak auzitara eraman eta irabazi. Atzetik beste batzuk etorri zitzaizkion:

<sup>9</sup> Herrietako Kontzejuak begiratu behar zuen hornidura ongi antolatua izatea eta beharrezko gaiak inoiz faltan ez. Horretarako emakidak xedatzen zituzten eta merkatariak ezarritako baldintzetan lortzen saiatzen ziren eta konpromisoa hartzen zuten Udaletxearen Pósito edo biltegian eskatutakoa beti izan zedin (Martínez Gorriaran 1993: 277).

<sup>10</sup> *Txuri* izengoitiak *faltsu* edo *itxurazale* esan nahi du. Agirien arabera, Iztuetaren etsaiek esaten zioten horrela.

<sup>11</sup> Hauek ere Iztuetaren aurkako lekukoaren artean zeuden epaiketean.

elizaren erreforma batzuen kontua, non bikarioaren aitak bazuen zerikusia; Alkateak eta Iztuetak, Udalaren premia ekonomikoa zela eta akordio faltan, jendearen aurrean *Animen kutxa* ireki eta diruak Udalarentzat jaso... Elkarren ezinikusia areagotuz joan eta leherketa laster gertatuko zen.

Villabonan bi bertsolari handien arteko dema zegoen deitua 1801<sup>12</sup> urtean, otsailean: Juan Ignazio Zabala eta Jose Joakin Erroizena, *Txabalategi*. Ekitaldi arrakastatsua gertatu zen, lau mila pertsona elkartu omen ziren entzule eta, publikoak eskatuta, epaileek erabaki zuten ez zela irabazle-galtzailerik, biak ezin hobe aritu zirelako. Gogoangarria izan zen bertsolaritzaren historiako lekukotza dugun lehen apustu hau. Iztueta epaimahaikide izateko Zabalak aukeratua zen, baina *eritasun txiki batek*, bere hitzetan (Iztueta 1990: 247), ez zion joaten utzi eta Fernando Bengoetxea Altuna, *Amezketarra*, bidali zuen ordezko. Herri-kultur kontuetan nolako itzala zuen argitzen du datu honek.

Urte berean, Gaintzako herrian, Martin Antonio Aldasoro bizi zen, bertako —geroago Zeraingo— idazkaria. Iztueta familian ezaguna zen, ez baina onerako; izan ere, gartzainadi batzuk erosi zizkion Juan Ignazioren ama Maria Etxeberriari, eta zerbaiten iruzurra izan zen tartean. Ekainaren 7an, iluntze berritan, Aldasoro hori emazte Ana Teresa Agirrerekin ohean zegoela, hiru lapur sartu zitzaizkien etxean, elkarren artean gaztelaniaz ari zirela identifikazioa oztopatzeko asmoz, eta bortxaz lapurketa egin zieten. Salaketa berehala jarri zuten eta abendu hasieran lau lagun atxilo zituzten: Juan Ignazio Zabala amezketarra, Villabonako deman aritutako bertsolari famatua, eta bi danbolin, Juan Migel Berroeta zaldibitarra eta Domingo Kerexeta beasaindarra, aurrekoaren etxean ofizioa ikasten zuena. Ordizian, abenduaren 6an, harrapatu zuten laugarrena, Juan Ignazio Iztueta dantzaria. Bosgarren bat ere, Alegiko ikazkin gazte Joakin Zalakain, espetxeratu asmo zuten, baina ihes egina zen. Iztueta ez zuten atxilotu lapurretako bat izategatik, baizik-eta gaizkileen xaxatzaile eta bultzatzaile izan zitekeelakoan. Hiru egun han egin eta Tolosako kalabozora eraman zuten. Bitarte horretan, uztailaren 13an, Etxabe parrokoak salatu zuen blasfemo- akusazioa eginez. Tolosako kartzelan zela, 1802eko martxoaren 6an, hil zitzaion Maria Joakina Linzuain emaztea.

<sup>12</sup> Jesús Elósegui (1971) eta beste batzuek, Ladislao de Velascoren aipamen bat oinarri hartuta, uste izan dute bertsolarien lehiaketa hori 1802an gertatu zela, espetxean zegoenean, eta ironiaz ari zela *eritasun* kontuarekin. 1802an gertatu izan balitz, Zabala bertsolariak ez zukeen parte hartzerik izango, bera ere preso zegoelako. Horretan, Pablo Gorosabel (1899-1900: 363-364) tolosarra eta Jesus Mari Etxezarretarekin (1993: 10) bat nator: 1801ean gertatu zen. 1802an, Tolosan beste lehiaketa bat burutu zen, lau bertsolariren artean: Zabala, Fernando Amezketarra, Juan Bautista Altamira eta *Txabalategi*. Orduan biak, Iztueta eta Zabala, herri horretan espetxeratuta zeuden. Garaiko kartzeletako ohiturekin aise lor zitekeen herrian bertako ekitaldira agertzeko baimena. Edo baimenik gabe irten, Zabalaren inguruko beste agiri batzuetan eta beste kontu batez azaltzen denez (Otermin 2014: 197-204).

## Kontxesi

Hilabete gutxiren ondoren, 1802ko maiatzean, Azpeitiko kartzelara bidali zuten, jada alargun zelarik. Hilabete horietan, Zaldibiako erretoreak salaketa berriak aurkeztu zituen dantzariaren kontra eta bere aldeko lekuko ugari bildu. Espetxealdia luzatzen ari zenez, Iztuetak lortu zuen behin-behineko zigorra leuntzea eta zaintzapean kalabozotik kanpo bizitzea, aurrenik koinatu baten etxean eta geroago adiskide aguazil Juan Ignazio Iparragirrerenean. Azpeitian atxilo zegoen, era berean, María Concepción Bengoetxea, *Kontxesi*. Noiz zehazki ez jakin arren, han ezagutu zuten elkar Iztuetak eta bigarren emazte izango zenak. Honen kontrako salaketa gogorra zen: Luis Ignazio San Juan apaizaren etxean neskame izanik, harekin izandako ume baten infantizidioa egozten zioten. Biak elkarrekin maitemindu eta *Kontxesi* haurdun geratu zen. Sortu zen Ignazia haurtxoaren jaiotzaz ditugun datuak nahasiak dira, eta ez dago garbi ulertzerik zer gertatu zen. Batetik, Aldekaitz baserriko labean utzi zutela ematen du; baina, bestetik, onartu zuten bataiorako eta agirietan gurasoen bi adiskide agertzen dira sinatzaile: Iparragirre aguazila eta Azpeitiko erretore Juan Ignazio Nikolas Odriozola. Ezkontzeko baimena Valladolideko *Real Chancilleriatik* 1808eko urtarrilaren 18an atera zen (Elósegui 1976-2: 445).

Tartean, 1806ko apirilean edo, Logroñora eraman zuten Iztueta, Inkisizioaren espetxera; izan ere, haren aurkako salaketak —heretiko eta blasfemo izatea— oso larriak zirela iritzi zioten epaileek. Han metatu egin ziren lekukoan aitopenak. Epaileak ere konturatu ziren zer zegoen atzean: Etxabe erretorearen ezinikusia eta ezker eskua. Iztuetak bere burua ongi defendatu zuen: erretoreak mehatxu eginga ziola, lehenengo auzitik ongi aterata ere, bigarrenetik ezin izango zuela onik irten. Etxabek hordagoz erantzun zuen: Iztuetarengatik bere buruaren integritateaz beldurrak zegoela. Azkenean apaiz jauntxoren itzala luzea izan eta zigor-sententzia lortu zuen.

Garai haietan, 1806an ziur aski, oso famatu egin ziren bertsoak idatzi zituen, ustez, Logroñoko espetxean: *Kontxesirentzat*. Bertso horien amaieran agertzen denez (Ansorena 1993: 91), sei urtekoa izan zen zigorra; eta horrekin etsi beharko, ezagutzen diren dokumentuetan ez baita ebazpenaren berririk. Aipagarria da bertso horietarako aukeratu zuen doinua: Gaztelan oso zabaldua zegoen *Churripampli* (Donostia 1983: 311) izeneko doinua, gurean herriz herri ibiltzen ziren hango itsuek eskean kantatzen zutena. Neurri berezia zuen bertsoetarako eta ederki erabili zuen Iztuetak.

1808ko otsailaren 9an, Juan Ignazio eta *Kontxesi*, bien espetxealdiak amaituta, Azpeitiko parrokian ezkondu ziren. Aurreko Ignaziaz gainera, beste lau haur sortu zituzten: Maria Antonia, Pedro Ignazio, Balentin Eusebio eta Jose Frantzisko. Batzuk, zoritxarrez ohikoa zenez, haurretan hil ziren. Martxoaren 27an, Iztuetaren ama hil zen, estutasun-urte batzuk pasa ondoren. Hortik aurrera, urte batzuetan ez da agiririk Iztuetaren berri zehatzik dakarrenik.



## Donostia eta bigarren espetxealdia. Liburuaren argitalpena

Urte horretan, 1808an, Napoleonen armada Espainian sartu eta *Independentzia gerra* deitutakoa hasi zen. 1813an, gerra hori amaituta eta Donostiako sarraskia gertatu ondoren, Azpeitiako justiziaren aurrean *infidentzia* salaketa bati aurre egin behar izan zion Iztuetak: alegia, frantsesen alde lan egin zuela gerra-urte horien bitartean. Horren ondorioz, berriro espetxeratu zuten, eta Tolosan bi hilabete t´erdi eman zituen 1814ko otsailetik aurrera. Jarraian, ekainaren amaiera arte, etxean egon zen preso; ustez, *Kontxesi* gaixorik zegoelako. 1815eko martxoaren 28an, bigarrenez alargundu zen, ez dakigu zein gaixotasunez emaztea hilda. Ondoren, beste urte-erdi bat eman zuen kartzelan. Auzi horretan, azaroko 24an, beste zigor bat ere jarri zioten, espetxean aurrez pasatako denboraz gainera: Donostiatik eta Azpeitiatik bi urte urrundu beharra; aukera eman zioten, dena den, ehun dukateko isuna ordainduz zigor hori ekiditekoa. Hortik aurrera eta betirako, amaitu zitzaizkion kartzelako kontuak.

Aurrerantzean, Donostian bizi izan zen, nahiz eta tratu, ikerketa eta dantza-emankizunetarako irteerak egin zituen. Hala, bada Iztuetaren gutun bat, honek Hernanitik Donostiara Lorenzo Alzateri bidalia. Beraz, han biziko zen bolada batez behintzat, agian libururako lanak prestatzen, Manuel Larrarte eta Agustin Iturriaga adiskide mamiñen babesean. 1819an, Donostiako Udalak ordainduta, *Miserikordia* etxeko haurrei dantza zaharrak erakusten hasi zen. 1824an, argitara eman zuen Gipuzkoako dantzen liburua eta 1827an doinuen azken atala.

## Hirugarren ezkontza eta heriotza

1828ko apirileko 8an, María Ascensión Urruzola, *Axentxi*, zizurkildarrarekin ezkondu zen Donostiako San Bizente elizan. Iztuetak hirurogei urte zituen eta *Axentxi*k hogeiei. Dokumentuetan agertzen denez, hau ere emakume ederra zen, aurreko *Kontxesi* bezala. Uztartze honek beste bi seme-alaba eman zizkion: Martina Antonia eta Pedro Ignazio.

Guganaino iritsi dira orduko eskutitz baliotsu batzuk. Horietan ageri denez, epe luze horretan harreman ugariak izan zituen euskal kulturaren, politikaren eta kanpoko euskaltzale askorekin, eta buru-belarri ibili zen euskararen aldeko kontuetan murgilduta eta kezka kulturalak harrapatuta. Bestalde, garai horretako agerietan igartzen denez, diru-egoera gorabeheratsuak igaro zituen. Dena den, 1829 urtean, egoera hori hobetu egin zen; izan ere, *Lehorreko atea*<sup>13</sup> deitzen zenaren zaintzaile izendatu zuen Udalak, eta horrela jarraitu zuen 1834a arte. Urte honetan, San Sebastian egunez, kargu hoberako aukeratu zuen Diputazioak: Donostian zegoen Gipuzkoako *Korregimenduko Tribunalaren* espetxean *Alkaide*. Orduantxe zen hasia lehenengo Gerra karlista (1833-1840) eta laster utzi zuen kargua.

<sup>13</sup> *Lurreko atea* ere esaten zitzaion —gaztelaniaz, *Puerta de tierra*—, itsasoaren aldetik zetorrenetik bereizteko.



1837 urtetik aurrera, Zaldibian bizitzen jarri ote zen errezeloa dago; herriko biztanlea zela ziurtatzen baita lekuko agertzen den hango dokumentu batean. 1839tik aurrera ziur da herrian geratu zela —beti ere irteera txiki batzuk egiten, tartekako dantzaldiak antolatzen<sup>14</sup>—, eskutitzak idazten, zorren eta patrimonioko arazoak konpontzeko ahaleginetan, hango lagun handi Juan Ignazio Manzisidor iloba edo Frantzisko Ignazio Lardizabal erretorearekin tertulietan... Urte horretan Diputazioak erabaki zuen eguneroko seina errealeko pentsioa xedatzea, dantzen inguruko jatorrizko liburua jasotzearen truke. Ez dakigu eman ote zuen, baina artxiboetan ez da ageri.

1845eko abuztuaren 18an hil zen *Iztuetanean*, jaio zen etxe berean; inguruan zituen emaztea, seme-alaba gehienak eta lagunak.

## GARAIAN GARAIKOAK: BIOGRAFIA ULERTZEKO OHAR HISTORIKOAK

### Krisi-garaiak

Atzera begira jarririk, azpimarratzekoa da zer-nolako gizarte-hitzarmen irudimentsua lortu zen XVI. mendean. Nolabait irten beharra zegoen, izan ere, Euskal Herriko zati handi batean —bereziki Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban— bizi zituzten Erdi Aroko banderizoen liskar odoltsuetatik, eta hiribildu eta jauntxoeren arteko istiluetatik. Azti ibili ziren Juan Martínez de Zaldibia tolosarra, Andrés de Poza urduñarra —*Licenciado Poza*— edo Esteban Garibai arrasatearra. Hauek bezalako politiko eta intelektualek egokitu eta zabaldu zuten ideia: euskaldun guztiek *odol garbia* zuten, kristau zaharrak zirelako. Teoria horren abiapuntua non aurkituko eta Tito Flavio Joseforen izkribuetan; estima handia baitzuen Erdi Aroan historiagile judu-erromatarrek. Honek idatzi zuenez, Tubal —Bibliako Noe patriarkaren biloba eta Jafeten semea— Penintsula iberikoan kokatu eta hedatu zen familia osoarekin, Kristo aurreko 2200 urtearen inguruan. Eta euskaldunak, garaiko uste zabalaren arabera, lehenengo iberiarren ondorengo zuzenak zirenez, Tubalen ahaideak ziren; beraz, denei zegokien kristau zahar izatearen berdintasuna, nahiz eta soilik azalekoa izan; desberdintasunak markatzen baitzituen ekonomiak. Sineskera hau ongi errotu zen euskaldunen artean, eta onarpen orokorra zuen XVII. eta XVIII. mendeetan. Euskaldun zahar izatearen frogantza, berriz, *etxe* batekiko antzinako lotura zen. *Etxea*, zabal ulertu behar zen. Eraikinak ez ezik, lurrek eta bertako biztanleen historiak ere osatzen zuten. Pertsonak horregatik hartzen zuten sarri deitura etxearen izenetik. Eta horrexegatik zen hain garrantzitsua *hidalgotasuna* (edo *odol garbia*) eskuratzea, Iztuetaren aitak lortu zuen bezala.

<sup>14</sup> Bergarako Besarkadaren urteurrena gogoratzeko 1840 eta 1844 urteen artean dantza zaharren hainbat erakustaldi prestatzeko Iztuetari deitu zioten, eta honek Zaldibiako gazteen taldea eratu zuen. Horien artean zegoen Jose Antonio Olano, geroago jarraitzaile izango zuena.

Iztueta jaio zenean, aldiz, krisian zegoen, alderdi askotatik, mendeetan egokiro funtzionatu zuen antolamendu hori. Ekonomia ildo nagusia nekazariena zen. Hauen artean maila desberdinak zeuden: batzuk lurren jabeak ziren; baina, azken urteetako demografia handitzearen ondorioz, maizterrak ziren gehienak. Baserritarrek lurra lantzen zuten, abere batzuk izan, eta hortik ateratzen zuten eguneroko mantenua. Gainerakoa saldu eta dirutxo horrekin ordaindu behar lurak ematen ez zituen beharrezko gaiak. Maizterrek baserrietako errentak ere ordaindu behar zituzten. Denen bizimodua eskasian eratzen zen, maizterrena ia miserian. Bestetik, jauntxo edo jabeen irudia bera ere aldatu egin zen. XVI., XVII. mendeetan eta XVIII. mendearen hasieran jauntxoak *etxean* bizi ziren, jarrera paternalista zuten etxearen inguruko guztiekin. Zuzenean zuten harremana azpikoekin eta *familia* edo tribu baten itxura mantentzen zuten. Pixkana jarrera horiek baztertuta, jauntxo asko, baserrien eta baserritarren gobernua administratzaile zitelen eskuetan utzita, kaleko etxeetara joan ziren; eta, *gortesa*u bihurtzarekin batera, negozioetan sartzen ziren. Hauetako handienek Bilbo edo Madrilera jo zuten, handik aukera handiagoak baitzituzten: Ameriketako tratuak eta abar. Administratzaile gehienek postuari eusteko eta, bide batez, beraiek ere aberasteko, nekazariak gupidarik gabe estutzen zituzten (Ortega 2018: 105-108). Oso gorrotatuak izan ziren eta, euren bidez, jauntxoekiko begirunea ere nabarmen apaldu zen. Tankera guztietako ustelkeriak eta gehiegikeriak hedatu ziren. Lakari<sup>15</sup> bikoitzena oso deigarria zaigu egun. Baserritarrei, berek ekoiztutako alea saltzean edo horren bitartez errenta ordaintzerakoan, lakari handi batez neurtzen zitzairen. Goseteetan, aldiz, erosi behar zutenean, lakari txikiz. Horrela, ale-kantitate bera ez zen berdin neurtzen: urriagoa zen saltzerakoan eta ugariagoa erostean. Iruzur lotsagarria, baina zabaldua (Martínez Gorriaran 1993: 301-302).

Jauntxo hauek, bestalde, semeak kanpoko *Seminario* edo Haztetxeetara bidaltzen hasi ziren, irakaskuntza hobea izan zezaten. Horietako askok, itzultzen zirenean janzteko, portatzeko eta hitz egiteko ohitura *finduak* zekartzaten, nahiz eta hemengo lege zaharrean bizi zirenentzat barregarri eta gorrotagarri izan. Eta alderantziz.

## Matxinadak<sup>16</sup>

Horrek guztiak antzinako hitzarmen inplizituaren haustura ekarri zuen eta, jada XVIII. mendearen hasieran, istilu sozial sonatuak gertatu ziren. Administradoreen maltzurkerien ondorioz *etxerik gabe* geratutako askok mendira jo behar izaten zuten eta hango lanetan jardun: artzain, basogin, ikazgile... edo eskale eta, tarteka, bidelapur.

<sup>15</sup> Ale-neurria: *celemín*, gaztelaniaz.

<sup>16</sup> Matxinadak: herri xehearen altxamenduak agintarien aurka. Oletako langileei *matxino* esaten zitzairen; izen hori baitzuen, hain zuzen, lantegietan erabiltzen zuten tresna handi batek. Horiek izan ziren altxamendu horietako lehen protagonistak.

Arlo honetan, *Tretatxu*<sup>17</sup> eta *Patakon* izan ziren famatuenak, baina asko zegoen<sup>18</sup>. Eskaleak ere neurri gabe ugaldtu ziren. 1718ko matxinadak Bizkaian izan zuen eraginik handiena. Gipuzkoan, 1766an, Iztueta jaio aurreko urtean, beste matxinada sonatua jazo zen. Uzta txarreko urtea izanik, jauntxoek trikimailu asko erabili zituzten diru-poltsak gizentzeko: aleak Probintziatik kanpora eraman, garestiago saltzeko; edo bertako salneurriak igo, baserritar eta langileen kaltetan. Jende xehea benetako gosea pasatzen ari zen. Madrilen, martxoan, arazo bera tarteko, *El motín de Esquilache* lehertu eta nolabaiteko irtenbidea lortu zuten, matxinatuei kontu batzuetan arrazoi emanaz. Berria berehala zabaldu zen Espainian barrena, baita Gipuzkoan ere. Azkoitian, diotenez, langile batzuek ikusi zuten nola ari ziren jauntxoen ale-zakukadak gurdietan kargatzen, kanpora salgai eramateko; eta gelditu egin zituzten. Tximista horrek piztu zuen matxinada. Azkoitia eta Azpeitiako jauntxoek ihes egin behar izan zuten edo etxeetan, guztiz itxita, ongi babestu; haien artean zegoen Peñafloidako Kontea, Xabier Munibe ilustratu famatua, Azkoitiko alkatea<sup>19</sup>. Beste herrietan ere izan ziren matxinadak, nahiz txikiagoak izan. Donostiatik etorri zen laguntza —mila eta bostehun gizonek osatutako milizia— eta altxatutakoen artean egin zuten ale-banaketa. Horrela baretu zen ekaitza, txikizio handirik gabe. Baina errudunak bilatu behar eta, jauntxoek jesuitei leporatu zieten langileen alde egin izana eta Carlos III erregeari eskatu zioten horiek Espainiatik bidaltzea. Horrela egin zuen 1767ko apirilean, dekretu bidez. Jauntxoei ederki etorri zitzairen beren hainbat propietate bereganatzeko. Besteak beste, Bergarako Seminarioa izango zena.

Azken gertakari honek azaleratu zuen euskal aristokraziak ez zekiela bere diru-goseak sortutako arazoak bideratzen. Eta areagotu egin zen ordu arte jauntxoek baztertutako burgesiaren indarra. Bi aldeek goi-mailako negozioak nahi zituzten, eta oztopo eta balazta suertatzen zitzaizkien foruen hainbat alderdi —probintzietako aduanak nabarmenena—. Herri xeheak eta elizjendeak, aldiz, oso maite zituzten foruak, euren nortasun eta interesen bermea baitziren. Bestalde, mende hasieran Borboitarrek Espainiako tronua hartu zuten gerotik, abian zen bide zentralizatzailea, eta susmo txarra hartzen ari ziren euskaldun asko. Egosten hasia zen, beraz, urte dexente geroago leher gaizto egingo zuen foruzaleen eta liberalen arteko talka.

## Eliza eta moral publikoa. Gerrak

Eliza beste botere handia zen garai hartako antolamenduan. Herriak ordaindutako zergetan zuen bizibidea: lortutako etekinen hamarrena eman

<sup>17</sup> *Tretatxu, lapurren Gobernadorea* (Ortega 2018). Iztueta bezala, *etxe* batekoa zen *Batxi* Landa, eskribau baten grina gaiztoa jaso eta dantzaria. Txundigarria da bion bizitzen arteko paralelismoa: biak dantzariak eta emakumeentzat erakargarriak, biak eskribauaren grina gaiztoa jasotakoak...

<sup>18</sup> Jesús Elósegui badu artikulu interesgarria gaiaren inguruan. Honen atal baten izenburua: «El Goierrri guipuzcoano alarmado con la actuación de malhechores» (Elósegui 1976-2: 437-439).

<sup>19</sup> Ez dago garbi orduan Alkate ote zen oraindik. Aurretik izan zela ziur da.

behar zitzaion. Populazioaren antzeko banaketa zuen: elizako handikiak aristokrata sotanadunak ziren, familia aberatsetako beste adarra eta diru horietako parte handiena poltsaratzen zuten. Apaiz gehienak, aldiz, baserritarren antzera, eskasian bizi ziren; eta hauekin bat egiten zuten bizimodu eta ohituretan. Fraile eta monjen komentuek ere biltzen zituzten zergak, baina hobeto integratuta zeuden komunitateetan, hainbat zerbitzu eskaintzen baitzituzten trukean: hezkuntza, botikak... Hala ere, *haragiaren bekatua* zen elizako ordezkarien kezka nagusia, uste dena baino libreago ibiltzen baitzen horretan herriko jendea (Goicoetxea 2006: 148-149). Horrekin borrokatzen egiten zituzten ahaleginik handienak.

Herri xehearentzat, aldiz, moral publikoa astinduta zegoen eguneroko bizimodua aurrera ateratzearekin zerikusia zuten arazoekin. Udalek, herrien hornidura bermatu behar zutenez, merkatarien artean banatzen zituzten emakidak; hala ziurtatzen zuten olio, ardo, sardinzarrak eta bestelako funtsezko produktuak erosteko aukera. Portaera-kodeak ezartzen ere saiatzen ziren, baita betetzen ez zituztenei salaketak jartzen ere; baina ugariak ziren arauz kanpoko jarrerak. Emakumeek, ezkondu ezean, apenas zuten aukerarik: edo etxean neskazahar geratu, komentuan moja sartu edo jauntxoek etxeetako mirabe izan. Asko tabernetako neska izatera zeuden behartuta. Prostituzioa, Gaztelan ez bezala, debekatuta zegoen Gipuzkoan; baina errealitateak agintzen zuen: tabernen inguruan modu errazean lortzen ziren harreman sexualak diru edo plazer hutsaren truke. Ezkontzaz kanpoko jaiotzak ugaltu eta arazo publiko bihurtu ziren. Hala, 1791 eta 1798ko Biltzar Nagusietan, harrera-etxeak prestatzea erabaki zen haur horientzat —tornukoak edo *expósito* deitzen zitzaienten—, eta baita hazama edo inudeak kontratatzea ere. Egoera larri horretan kontuz ibili behar izaten zuten; izan ere, sarri amak haurra laga eta jarraian bere burua eskaintzen zuen umea zaintzeko. Horrela dirutxo batzuk kobratzea lortzen zuen eta umea berarekin geratzen zen (Martínez Gorriaran 1993: 370-1).

Egoera sozial honetan, liskarrak eta biolentzia zabalduta zeuden, auzokoen eta herrietako agintarien aldetik ere:

*Si ejercer un cargo público era considerado como un honor (...) poner en duda (...) el desempeño de su labor suponía una importante deshonra, lo que podría explicar el motivo por el que muchos oficiales respondieron con una desproporcionada violencia a la desobediencia o a las acusaciones de sus vecinos (...).*

*Era necesaria una satisfacción pública ante cualquier afrenta, ya fuera por medio de las excusas del ofensor o de la venganza. Recurrir a la justicia (...) podía ser entendido como una renuncia a la propia pretensión de resolver cada uno por sí mismo sus propios problemas de honor. (...) no era extraño que cualquier persona, para mantener su posición dentro de la comunidad, recurriese a la violencia ante actos que se podían interpretar como ataques intencionados a la estima social, aunque no se tratara de ofensas personales (Bernal 2005: 42).*

Mende horretan Gipuzkoan hainbat gerra ezagutu ziren. Gipuzkoako lurraldeetan barrena ibili ziren soldadu-aldrak eta jarraitzen zieten jendilaje-saldoak. Eta herrietan egin zituzten egonaldi luzeen ondorioz eta bertako biztanleekin izandako harremanen bitartez, Europako ohitura eta olgeta modu berriak zabaldu zituzten, moral publikoa areago nahaspilatuz. Iztueta jaio zenean, oraindik bizirik zegoen zaharren oroitzapenetan *Suzesioaren gerra*, Felipe V Espainian errege jarri eta 1713an amaitu zena. Frantziako Iraultzaren ondoren, 1793an, Konbentzioaren Gerra hasi zen; eta 1794an Frantziako Armada Gipuzkoan sartu zenean, Donostiako agintari liberalek Frantziaren babespeko Errepublika bihurtu zuten Probintzia. Hurrengo urtean, 1795ean, Basileako Bake Hitzarmena sinatu zenean, frantziarrek alde egin zuten, baina ondorio gaiztoak utzita: batetik, kalte asko eta, bestetik, ministro Godoy eta Carlos IV.aren mendeku-gosea, kontu horietan parte hartutako gipuzkoar buruzagien aurka. Geroago, 1807 eta 1808 urteetan, Napoleonen eskutik sartu ziren berriro frantsesak euskal probintzietan, eta 1813a arte geratu bertan. Orduan, epela izan zen herriaren erantzuna; eta euskal agintariek, baita armetan altxatutakoek ere, euskal foruak defenditzeari eman zioten lehentasuna.

## DANTZAREN GARRANTZIA. BILTZEN DIREN TANKERA DESBERDINAK

### Dantzaren egoera urte hauetan

Iztuetak dantzari damaion garrantzia txundigarri gerta dakiok eguno irakurleari. Baina Errenazimendutik<sup>20</sup> eta XX. mendera arte, European, Espainian eta Euskal Herrian, dantza izan zen olgeta modurik estimatuena, herri xehean eta handikien artean. Ez ziren batzuen eta besteen dantzak elkarren urruti ibiltzen, baizik-eta elkarri begira, maiz kopiaketan<sup>21</sup> (García-Matos 1996: 121-134). Egungo kontsumo-musika edo masa-kirolen pare ia.

Antzinako kultura gehienetan, gazteen hezkuntzak dantzan zuen oinarri sendoa. Handikien artean, olgeta-kontua ez ezik, hezkuntza eta hierarkia sozialaren agerkari ere izaten zen dantza. Gazteen indarra, liraintasuna eta mugikortasuna (egun *sikomotrizitatea* deitzen duguna) garatzeko ikasbidea zen. Baita jai sozialen osagarri beharrezkoa ere. Adibidez, inoren ezkontza edo bestelako festa berezia ospatu behar zenean, janari edo edariari beste ardura eskaintzen zitzaion dantza-maisuari. Beraz, bazegoen dantza-maisuen merkatua, egungo hitzetan esanda. Herriko jendeek horixe bera imitatzen zuten. Burgesek, bereziki lanbide desberdinetako gremioek, haien mailaren parean

<sup>20</sup> Askoz lehena gotik ziur aski ere bai. Baina datu-eskasia dago.

<sup>21</sup> Bidadorrek (Bidador 2005: 13) eta beste hainbatek ontzat ematen dituzte Peter Burke historialariaren iritzia: handikiek euren dantza-tankerak eta irizpideak herritarren moduen gainean ezartzeko ahalegin iraunkorrari deitzen diote erreforma. Beste gizarte-arlotan bezala, ahalegin hori ez da, ordea, eragin bakarra harreman konplexu horietan. Maiz, alderantziz gertatu da prozesua: goikoak ibili izan dira jende xehearen imitatzailerik, herritarren dantzakera libre eta lotsagabearekiko miresmenak harrapatuta.

agertu nahi izaten zuten, ahal zuten neurrian. Horrekin batera, goi-mailako pertsoneri zegokien portaera ere dantzaren bitartez ikasten zen. Espainian, XVI-XVII mendeetatik, *Escuela española* jarraitzen zen dantzarako. *Descuido* zuen izena dantzakera horren ezaugarri nagusiak; itxurazko lasaitasuna, alegia: ez zen igarri behar dantzan egindako ahalegin eta esfortzua; dena aise egiten zela eman behar zuen. Austriarren *Gortean* horixe lantzen zen, eta beste maila sozialetan horren eratorri egokituak.

Batzuek eta besteek mutil gazteen hezkuntzan borrokarako prestaketa zuten helburu<sup>22</sup>, ez bakarra, batzuetan irudimenean besterik ez bazen ere. Oroimenean itsatsita zituzten borrokarako prestakuntza beharrezkoa zen garaiak eta oraindik ere sarri sortzen zen erabiltzeko aukera. Balio *kulturala* zen. Manuel Larramendik aipatzen zuenez, baretzen ari zen herri-dantzaldiak borroka ginez bukatzeko antzinako ohitura; ez guztien onarpenez, hala ere:

*El valor de los guipuzcoanos que tan largos tiempos estuvo desacreditado con el nombre de ferocidad y barbarie, está hoy casi limpio y despejado de esa nota. Ya no se ven ni se oyen aquellas palizas horrendas entre unos lugares y otros, y aun entre un barrio y otro de un mismo lugar, que de estilo y costumbre se practicaron hasta un tiempo. Ya las romerías se hacen sin esas bárbaras valentías (...). Es verdad que muchos viejos en Oyarzun y otros lugares se lamentan de que ya no hay hombres ni valen nada las fiestas, porque no se ve siquiera una cachetina entre muchachos... (Larramendi 1882: 157).*

Dokumentatuak daude<sup>23</sup> horren eta antzeko egoeren inguruko salaketak. Horregatik lotzen zen guduekin dantza askori ematen zitzaaien interpretazioa, eta esaten zen borrokaren imitazioa zirela koreografiak. Eta, era berean, horregatik dira atletikoak dantzak, eta eskatzen dute gorputzaren zalutasun eta indar handia. Nesketan, berriz, bestelako balioak bilatzen ziren: arintasun eta erritmo-zentzu egokiarekin batera, garaiko feminitatearen moduak; ongi marraztea, alegia, orduko gizartean emakumezkoei zegokien kokapena.

## Borboitarren modu berriak

Espainiako tronua Borboitarren esku geratu zenean, arlo guztietan hasi ziren gertatzen erreformak: ekonomian, politikan, hezkuntzan, zientziaren garapenean..., eta baita ia erabat analfabetoa zen herriarengan eragin handia zuten kontuetan ere: antzerkian, musikan, dantzan, janzkeran, eta zezenketetan ere bai. Dekretuz egindako erreforma hauek, oro har, *kanpoko inposizio* gisan sentitu zituen herri xeheak. Espainiar musikari hainbatek herbestera joan behar

<sup>22</sup> Hona Jon Bagues adiskidearen oharra: «gazteen hezkuntzan dantzak zuen garrantziari buruz, kontuan hartu behar da dantza irakasteko erabiltzen ziren bost posizio basikoak esgrimaren posizio berberak direla, hau da gazteek gorputza ongi jartzeko eta gerrarako prest egoteko erabiltzen zirela» (Elkarren arteko mezua 2019-08-13). Larramendi kexatu egiten zen nola ari zen galtzen esgrima ere (Larramendi 1882: 198).

<sup>23</sup> Arocena 1930. Larralde 2016-2017.

izan zuten; eta, aldiz, italiarrak ziren maiteen gortean: Domenico Scarlatti eta Luigi Rodolfo Boccherini konpositoreak, edo Carlo Broschi Farinelli kantaria. Aldi berean, debekatu egin ziren antzerki<sup>24</sup> barrokoaren tankerak, nahiz eta herriak oso gustukoa zuen antzerki hori. Erreforma honek altxamendu deigarriak eragin zituen Madrilen eta beste hainbat hiritan.

Dantzaren alorrean, borboitarrek mende hasieratik saiatu ziren gauzak aldatzen. Baina askoz ere eragin handiagoa izan zuen Espektakuluen Lege berriak; hau Arandako Kondeak egin zuen eta 1767an jarri zen indarrean, Iztuetaren jaio zen urtean. *Afektazioa* zen dantzakera berriaren ezaugarria, aurrekoaren oso bestelakoa. Agintari berberak sinatu zuen, urte horretan bertan, Jesusen Konpainia Espainiatik bidaltzeko dekretua. Josulagunak lehengo dantza moduetako irakasle eta babesleak izan ziren, eurek zuzentzen zituzten ikastetxe eta *Seminarioetan*. Eta, fundatzailea euskalduna izanik, oso harrera ona zuten Euskal Herrian. Bi mundu-ikuskerara jartzen ari ziren aurrez aurre, gure eskualdeetan are nabarmenago; eta dantzaren alorrean ere islatzen zen erronka. Dikotomia honen baitan ulertu behar da Iztuetak askotan idazten duen aurkaritza. Alde batetik, Gipuzkoako dantzak daude; denak garbiak dira eta aldeko adjektibo guztiak merezi dituzte. Bestaldean, azken modako horiek daude; zatarrak dira eta gaitzespena besterik ez dute merezi.

### Iztuetak aipatzen dituen dantzak

Hainbatetan aipatzen du Iztuetak: lehenagoko jauntxoek egunez plazan eta iluntzetan Herriko etxeetako ganbaretan egiten zuten dantza (Iztueta 1990: 81), gazteen aurrean edo gazteekin lehian. Argi idatzi zituen dantzari zahar horietako batzuen izenak ere: On Jose Maria Lardizabal, On Joakin Areizaga, On Manuel Sarobe... Ohitura hori desagertu izana da, hain zuzen ere, liburuaren abiapuntuan dagoen kezka.

Han irtengo zan bata *Bilantziko* atsegingarria dantzatzera. Bestea *Txakolin* txistosoia; hura *Ezpata dantza* ondrosoa; hau *Azeri dantza* pozgarria; urliak

<sup>24</sup> Gaztelaniaz, baile esaten zitzaion kaleetan eta antzerkietan egiten zenari; hauek kaleko moduak imitatzen zituzten eta. Danza, aldiz, handikiek egiten zutenari deitzen zitzaion; maisuen bitartez ikasten ziren edo jai handietan egiten; Korpus egunean, esaterako. Euskaraz bereizketa hori ez da ezagutu. Antzerkiak dantzarekin zerikusi handia zuen. Han dantza ausartagoak eta jendearen eromena zekartenak eskaintzen baitziren; fandangoa, esaterako: «Ce qui me ravit dans ce spectacle, ce fut quand, vers minuit, au son de l'orchestre et au bruit des claquements de mains, on commença par couples la danse la plus folle qui jamais se puisse imaginer. C'était le fameux fandango, dont je croyais avoir une idée juste et dont j'étais à mille lieues. Je ne l'avais vu danser qu'en Italie et en France, sur la scène; mais les danseurs se donnaient bien de garde d'y faire les gestes qui rendent cette danse la plus séduisante et la plus voluptueuse possible. On ne saurait la décrire. Chaque couple, homme et femme, ne faisant jamais que trois pas et jouant des castagnettes au son de l'orchestre, font mille attitudes, mille gestes d'une lascivité dont rien n'approche ». Giacomo Casanova (1725-1798) Europa osoan ibilitako abenturazale italiarra izan zen, emakumeekin izandako abenturengatik famatua eta antzerki-aktoreen semea. Hala ere, txundituta agertzen da fandangoaren lizunarekin.



dantzatuko zuen *Kuarrentako erregela*; sandiak, *Galantak*; berendiak, *San Sebastian*; honelakoak, *Azalandare*; halakok, *Napartxo* (...). Orduko gipuzkoar prestuak ez ziraden lotsatzen, goienen goienengoak izan arren, nekazale oneskiakin batean biltzarkidaturik, beren asaba maitagarriak irudikatuaz, plaza agirikoetan jostaldiatzea; ez eta gela beakurtsuetan berai, zekitzaten gai onesbedagarriak erakustea ere (Iztueta 1990: 80-81).

Dantza hauek denek dute estetika ordenatuaren zentzu bipil eta zurruna; kode estetiko berean kokatzen dira. Arau orokorrak dituzte, nahiz eta ez egon erabakita dantza bakoitzean zein urrats egin behar diren. Tradizioz iritsitako bilduma luzetik, dantzariak berak —bakarra denean— edo maisuak —taldean dantzatzen denean— aukeratu behar izaten ditu pausoak eta egokiro konbinatu. Eginkizun horretan hiru lege nagusi hartu behar ditu kontuan: gradualtasuna —errazetik zailagora—, doinuen periodoak ongi jarraituz bakoitzaren amaiera ongi *ixtea* eta simetria orokorra —alde batera egindakoa bestera ere betetzea—.

Jasotako dantza motak bost ataletan bana daitezke: *Soinu zaharrak*, *Esku dantzak*, *Ezpata dantza*, *Brokel dantza* eta *Iñauteri* edo festa berezietakoak. *Soinu zaharrak*, beste izen batez *Txiruliruak*<sup>25</sup> —hauekin egin behar izan zuen bilketa eta sistematizazio-lanik handiena— banaka edo binaka elkarri erronka jarritz burutzeakoak ziren, aurrez atondutako koreografiatan taldeka ere presta zitezkeelarik. Ezaugarri nagusi zuten esaldi musikalen irregularitasuna, neurri librea eta lan nemotekniko<sup>26</sup> mardula eskatzen zuten. Dantzariak, bere sormen atletikoa abiatu aurretik, doinu guztiak buruz mamituta behar zituen. Antzematen da bildutakoen artean mailaketa zegoela: batzuk laburrak, hasiberrientzat; erdibidekoak, saiatuentzat; eta gutxi batzuk oso luzeak, *Kuarrentako Erregela* esaterako, goi-maila zutenentzat.

*Esku dantzak* dantza sozialak dira eta, era folklorikoan besterik ez bada ere, oraindik bizirik daude gure artean. Dantzariak, eskuetatik<sup>27</sup> elkarri helduta, ilara edo soka antolatzen dute eta plazan agertzen dira liturgia konplexu batean bildutako hainbat atal biribilkatzen. Hortik dator *Soka dantza* edo *Dantza soka* ere deitza<sup>28</sup>. Era plastiko, partehartzaile eta liturgikoan agertzen dituzte zer

<sup>25</sup> Iztuetak ez zuen izen hau erabili. Agian maila eskasekoa iruditu zitzaion.

<sup>26</sup> Horregatik esaten zitzairen gaztelaniaz *danzas de cuenta*, konpasen eta pausoen kontua eraman beharra baitzegoen.

<sup>27</sup> XVIII mendean, moralisten eraginez, eskuetatik zuzenean ez heltzeko zapiak erabiltzen hasi ziren. Hainbat lekutan oraindik mantentzen da ohitura. Ez da pentsatu behar moralista horiek inozoak zirenik. Gehienak apaizak izanik, aitorlekuari esker ongi ezagutzen zituzten gazteen arteko limurkeriaren trikimailuak. Eskuak heltzerakoan bazegoen hizkuntza ezkutua: hatz batekin, esaterako, beste inor konturatu gabe, neskaren eskuan proposamena egin zitekeen eta neskak bide beretik erantzun geroko topaketari bide ematen ala ez. Bazuen konplexitaterik hizkuntza horrek: noraino heltzeko prest zeuden eta abar. Hori gure gurasoen belaunaldiek bizirik ezagutu dute. Eta kolektibo batzuetan, isolatuta gertatu direnean, homosexualenean esaterako, gure garaietaraino iritsi da. Zein antzinakoa den eskuz lotutako dantzak egitea ikusteko: Castelo Ruano 1990. Eta Gaztelan ere antzekoak egiten zirela: Porro 2012.

<sup>28</sup> Gipuzkoan aldaera desberdinak daude eta Euskal Herriko beste eskualdetan are desberdinagoak, bestelako izenez bataiatuak: *Ttun-ttun*, *Giza dantza*... *Gipuzkoa eta Bizkaiko*

baldintza behar dituen soziedade batek ongi mamitua bizitzeko eta barne-trabantza egokia izateko, komunitate horretako pertsonak senti eta barnera ditzaten. Atalka zehaztuta. *Plaza* leku publikoaren ordezkari nagusia da eta tankera horren aldarrikapena egiten da aurreko ibilaldian, *dantzariak eskuetatik helduta eta bi muturretan sokatik tira egiten dutenak* (Gipuzkoa eta Bizkaian *aurreku* eta *atzeskua*), soziedade guztietan dauden indar eta buruzagi kontrajarrien adibide dira. Eta beren arteko oreka beharrarena. Batera edo bestera antzezten diren *zubiak*, elkarrekin bizi ahal izateko, arau batzuei men egin beharrenean agerpen ikusgarria osatzen dute. *Sokatik kanpoko jende gehiago* bertan integratu ahal izateak ere elkarbizitzarako ideia ederra gogorazten du, beti ere iritsi berriei zubipetik pasa arazita.

Iztuetak, *esku dantza* hauen sailkatzean, gizarte estamentalaren antolamendua islatzen du: *Gizon dantza*, *Etxe andre dantza*, *Neskatxen Esku dantza* eta *Galaien Esku dantza*. Izan ere, esaterako, oso desberdina zen, antzinako bizimodu horretan, etxeoandre, neska edo neskatila izatea eta multzo bakoitzekoei zegozkien jarrerak, jazkerak, baita orrazkerak ere, arras diferenteak. Zeremonia-protokoloa zurruna zen goi-mailan: *Gizon dantzak*, nagusi eta agintarien dantzak, zorrotasuna eskatzen zuen liturgiaren atal guztietan; boterearen seinale izaki. *Etxekoandreena* lasaiagoa zen alde horretatik. Gazteenetan, berriz, askozaz libertate handiagoa zegoen, eta kalez kale ere erabil zitekeen soka.

*Ezpata dantza*, jatorriz, dantza solemnea da. Korpus eguneko prozesioan egiten zen, Jaungoikoaren omenez; edo herri bakoitzeko santu patroiarenean, edo handikiei egiten zitzaizkien gorazarretan. Errege-Erreginen harreretan, dantzari multzo oso handiak elkartzen ziren; ehundik gora batzuetan. *Pordoi dantza* ere sail honetan kokatu behar da.

*Brokel dantza* saila, berriz, egokiera berezietan eskaintzen ziren dantzen bilduma da. Koreografia jakinak dituzte, gehienak tresna batzuen laguntzaz burutzen direnak (makila txikiak, makila handiak, brokelak...). Egitura errepikakorra dute, nahiz eta badagoen elementu batzuk konbinatzeko hainbat aukera: sarrera moduko zortzikoa, lehenik buruzagi edo maisuak dantzatu ohi du; ondoren, taldeak; eta amaitzeko, aipatutako tresnekin burutzen den *jokua* dator, trebezia-indarra erakustaldia. Iztuetak xehetzen duen bilduma egun osatuagoa eskaintzen da; bertan sartu baitira *Ezpata dantza*, *Jorrai dantza* eta *Pordoi dantzaren* bertsiio soilagoak ere, eta uztaien dantzak ere itsatsi direlako<sup>29</sup>. Baina, oro har, egitura bera mantendu da. Dantza horiek dira nagusiak; baina beste batzuk ere jaso zituen bilduman, non kokatu ondo jakin ez zuelarik: *Edate dantza*, *Azeri dantza*...

---

moduak deitzeko egun zabaldu den izena Aurreku da, nahiz eta hau berez aurreko dantzariari besteri ez dagokion.

<sup>29</sup> Iztuetak soilik deskribatzen du «nere gazte denboran» ezagutu zuen Brokel dantza. Baina argi aitortzen du osagarri berriak atxiki zaizkiola eta ongi iruditzen zaiola: «Baina orain, nola Gipuzkoako zaldun gazte, argi, askok, ikasi dituzten Hazitetxe edo Seminarioetan, kontradantza ta beste aldaira gisa anitz, hobek sartu dituzte Brokel dantzan guztiz egokitasun handian, eta txit txukinkiro. Beragatik maitatu behar ditugu gureak balirake bezala» (Iztueta 1990: 172).

Hauek denak Europako kulturaren dantza modu zaharrak ziren. Italiatik Alemaniara, Norvegiatik Espaniaraino antzina zabalduak, leku batzuetan galdu, besteetan indartu eta batez ere batasunik gabe garatu, piskana herrialde bakoitzeko bizimodu eta gustuei atxikitu zirelarik. Horretarako bultzatu zuen tokian tokikotzat hartzea. Ameriketara ere zabaldu ziren misiolari eta kolonizatzaileen bitartez.

### Dantzaren kontrako grina: Deabruaren lana

Dantzari balio sakratua antzinatik eman zaio eta, nahiz eta askok onura handiak ekartzen dituela ametitu, beti izan dira begi onez ikusi ez dutenak ere. Beldurra sortu izan du hainbatengan: tradizio biblikoan bazuen deabruaren nahia bideratzeko balioa. Herodesen alabaorde Salomek horrela lortu zuen Joan Bataiatzailearen heriotza. *San Vitoren dantza* ere bizirik zegoen garaiko iruditerian: Europako hainbat lekutan —Estrasburgon 1518an ezagunena— jende saldoak dantzan hasten ziren eta ero moduan jarraitzen zuten, luzaro, orduak eta egunak, askotan hil arte. Agintarien kezka izan zen urteetan, eta horren inguruko ipuin eta leienda asko zabaldu ziren herri-literaturan. Azkenik, moralista askok gaitzesten zituzten dantzaren bitartez bideratzen ziren harreman sexualak eta agintarien aurreko harrokeriak. Azken batean, izan ere, boterearen kontrolatik kanpo geratzen ziren jarduera sozialak ziren. Horrexegatik ditu Iztuetak halako kezka eta interesa, hain zuzen, berriro abian nahi litzuzkeen dantzak garbiak eta neurtuak direla frogatzeko.

Idazle asko aritu ziren Iztuetaren aurretik eta ondoren ere dantzen moralitasunaz, ez bakarrik Euskal Herrian<sup>30</sup>. Pedro de Axular idazleak honela dio 1643 urtean, *Gero* liburu ospetsuan, zeina Bordelen argitaratu zuen:

Bada kastitatea begiratu nahi duenak, ez du dantzatu ere behar, eta ez soinuk diren lekura joan (...). Jende gazte arinen, zentzuz baino zangoz fidago direnen ofizioa da dantza. Dantzan ez da okasino gaixtorik baizen. Han ahalkea galtzen da; ezagutzatan sartzen da: solastatzen da, trebatzen da, eskuztatzen da, mandatua egiten da, eta azkenean behar ez dena sortzen da (Axular 1964: 529).

Sebastian Mendiburu josulagunak gogor jo zuen sermoi eta liburuetan dantzak gaitzetsiz, nahiz eta Manuel Larramendi josulagun kideak aurka egin zion (Larramendi 1882: 195-245. Bidador 2005: 173-266). Eta fraile asko ibili ziren herriz herri *misioak* egiten, egun batzuetan sermoi izugarriak predikatuz —dantzan aritzea bekatu zela eta infernuaz jendea izutzen— eta bekatuen aitortpenak bultzatuz. Maiz, horien ondorioz, Udal-kontzejak neurri zorrotzak hartzen zituen dantzak debekatuz edo muga oso estuak jarritz<sup>31</sup>.

<sup>30</sup> Horietako asko biltzen dira liburu honetan: Bidador 2005.

<sup>31</sup> Anguiozar 1930; Sagaseta 1979; Bidador 2005.

Iztuetak, dantzen aldeko diskurtsoan, Larramendiren testuak izan zituen laguntzaile<sup>32</sup>; hau Juan Ignazio jaio baino urtebete lehenago hil zen. Etsairik amorratuena, berriz, Bartolome Madariaga Garate izan zuen, *Fray Bartolomé de Santa Teresa* karmeldar garaikidea, 1766an Markinan jaioa. Hau eta Iztueta elkarrengandik hurbil ibili ziren, bai denboraz eta bai tokiaz; fraideak bolada luzeak pasatu zituen-eta Lazkaoko monasterioan. *Euskal Errijetako olgeeta ta dantzeen neurrizko gatz-ozpinduba* du honek obrarik ezagunena, Iztuetaren antitesien bilduma eta dantzen aurkako kanoikada sorta handia:

Nahaste hatan entzuten dan, ta ikusten dan guztia, da luxurijaren suba, ta keia. Batian dantza luzian arin-arina gorputzak in alkar jotzen. Bestian pandanguan nos arpegijakin, nos besuakin, nos sabeleekin, nos albuakin alkar ez joko, bai joko neska, ta mutil, menio desonestubak, ta lotsarizkuak geratu bagarik egiten deutseezala alkarri<sup>33</sup> (Santa Teresa 1816: 67).

Egun, duen idazketa bizi eta barregarriarengatik balio du, ez aipatzen dituen arrazoi antigoaleko eta inozoengatik. Iztuetak ihardespen sutuak eskaini zizkion, bai liburu honengatik, bai bere adiskide euskaltzale *Mr. Lécluse* defendatuz —honen euskarari buruzko liburuaren aurka jo ere baitzuen Frai Bartolok—.

## DANBOLINAK: IZTUETAREN DIAGNOSTIKOA ETA ERREALITATEA

### Zer da danbolina?<sup>34</sup>

Nahiz eta jatorri geografiko eta kronologiko zehatza ez dugun ezagutzen, badakigu XIII. mendean Europan zabaldu zela, erromes-bideen sarean barrena, *flute-tambourin* tresna bikotea, euskaldunen artean *Danbolina* deitua; izen hau jotzailearentzat ere erabiltzen zelarik. Aurrerapen tekniko berezia zekarren: jotzaile bakar batek batera jo zitzakeen doinua eta erritmoa, horrela dantzen laguntzarako musikari tankera ezin egokiagoa sortu zelarik.

Danbolinaren garrantzi musikalak eta sozialak gorabeherak izan dituzte eta modu desberdinetan garatu dira hainbat inguru kultural eta geografikotan. Errenazimenduan izan zuen Europa osoan garairik indartsuena. Geroago, herrialdeen araberako beherakadak etorri zitzaizkion, nahiz eta leku guztietan nahikoa sendo mantendu zen herri-dantzaren alorrean, ia XVIII. mendera arte. Orduetik aurrera, nabarmenagoa izan zen gainbehera eta desagertu egin zen inguru askotan. Batzuetan, soilik nekazari-giroan eta kultura tradizionalan

<sup>32</sup> Eta ez soilik dantzen arloan. Beste arlo askotan ere, Iztuetaren obra hau eta Gipuzkoako Kondaira, neurri handian, Larramendik gaztelaniaz idatzitakoaren euskal bertsioetatik jo daitezke. Ez da eragin zion bakarria. Iztuetaren obra osoan antzematen da ondo bereganatua zuela *Historia de las naciones bascas* (1818), Juan Antonio Zamakolak (1758-1819) idatzia (Garmendia 1995: 55-61; Sánchez Equiza 1999).

<sup>33</sup> Testu hau Frai Bartolomeren obsesioaren adibide koskor bat besterik ez da.

<sup>34</sup> Honen inguruko berri gehiago: Ansorena, 2014.

iraun zuen (Penintsula Iberikoan, Kantauri itsasertzeko herrialde batzuetan eta *Zilarrezko bidean*; baita hainbat herrialde solteetan ere: Katalunia, Balear Uharteak eta Kanariar Uharteetan; gainera, Sardinia, Italiako eta Britainia Handiko bazter batzuetan... eta, Europako emigranteen eraginez, Amerikako hainbat lekutan ere bai). Bestalde, inguru gutxi batzuetan, garai eta tankera desberdinetan (Proventza, Katalunia edo Euskal Herrian), ahaleginak egin dira jardun eta kategoria musikala altxatzeko.

XVII. eta XVIII. mendeetan, *Tambourin* edo *Tambourino* izeneko genero musikala sortu zen frantziar konpositoreen artean; Proventzako danbolinen estiloa imitatzen zuten pieza laburrak ziren. Hauetan ere, garaiko estereotipo kulturalak atxikirik, doinu bereziak sortu zituzten: *Tambourin chinoise*, *Tambourin basque*, *Tambourin turquoise*... Euskal *Txistu* eta *danbolin* izenez ezagutzen diren tresnak *flute-tambourin* bikotetik eratorriak dira, baina badituzte ezaugarri propioak, familia bereko besteetatik ongi bereizten dituztenak. Egun dakigunaren arabera, XVIII. mendearen azken laurdenean zertu ziren, ilustrazioaren mugimenduak bultzatuta; hau da, Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen eta Bergarako Seminarioaren eraginez. Euskal Herrian tresna hauek oso errotuta zeuden XVIII. mendean. Iztuetak honela idatzi zuen:

Ez da sortu eta asmatuko ere euskaldunentzako hoslankai edo instrumento pozkarriagorik, nola diraden danboliña eta txilibitua. Orain dalarik berrogei urte, gutxi gora behera, jarri zuen txilibitua musikan Pepe Anton zanak (Iztueta 1990: 67).

Beste bideetatik iritsitako datuekin parekatuta, ematen du *Pepe Anton* hau izan zitekeela José Antonio del Barrio, merkataria eta José Javier de Echevarría lekeitiar txistulariaren babeslea. Iztuetak azken honen berri zuen Vicente Ibarguren<sup>35</sup> danbolinarekin adiskidetasuna zuelako eta bi txilibitulari hauek elkarrekin joanak zirelako Madrilera, non, Medinacelliko Dukeak eramanda, Gorteko Erregeren Errejimiento batean hartu baitzuten lan eta handikien jauregietako festetan jotzaile ibili baitziren. Carlos IV Erregerentzako funtzio pribatu hainbat eskaini zituzten. *Pepe Anton*, José Antonio del Barrio, Madrileko abentura diruz sustatu zuen *mezenas* izan zen. Ez dago horren argi, ordea, berak egin ote zuen, zuzenean edo enkarguz, euskal txistua solfeoan jartzeko lana. Garai horretan tresnetan gertatu ziren aldaketa guztiak ere ez ziren *Pepe Antonek* bultzatutakoak izan (Echevarría 1793).

<sup>35</sup> Azpeditiko Juan Ibarguren danbolinaren semea, aitarekin hasi zen danborra jotzen herri horretan. Azkoitiko lehen danbolin postua lortu zuen eta bertan izan zen 1771-1775 urteen artean (Eliás 1997: 447. 1999: 442-443.). Donostiara etortzeko utzi zuen hango postua. Santa Katalina zubiaren petxen kobratzaile izan zen; eta 1813tik 1815era espetxeko alkate, geroago Iztueta izango zen bezalaxe. Berritsutarren bidea zabaldu zuen; alegia, txistuaz nota asko era harrigarrian jotzen zuten danbolinena. (Sada 2002: 162). Danbolin ikasia izanagatik, Iztuetaren oso adiskide ona izan zen.

## Danbolin berriak

Iztuetak argi zehaztu zuen zer aldaketa egin zizkioten urte horietan *txilibitulari*<sup>36</sup> berriek tresna-bikoteari, txilibitu eta danbolinen tamainak txikiago bihurtuz: «Txilibituak eta arratzak ere, askoz haundiagoak ohi zituzten lehenagoko danbolinak, oraingoak darabiltzatenen aldean» (Iztueta 1990: 72). Badakigu tresnagintzaren kalitatea hobetu zela; izan ere, Bergarako Seminarioan Ganbera Musikan erabilpen usua zegoela ematen du. Agian, inguru honetan izan lezake jatorria metalezko pita eta mihien zabalpenak ere:

Para tocar su música se sirven los Vascongados de una especie de flauta dulce, que llaman Chilivituba, y en Español silvo: tiene solo tres agujeros para formar los tonos, y con su ayuda abraza dos octavas de extensión, empezando por el Cesolfaut más grave de la flauta común. La primera décima de su diapason, es bastante agradable; pero los tonos más agudos, son además de difíciles de sacar bien, poco gratos.

Según la naturaleza de este instrumento, cuando se quiere emplearlo en Orquesta se temple su primer Delasolre, con el Alamirre del violin, de modo que su parte debe estar escrita en la de los violines, entonación de un sostenido menos o un bemol más (...). Para la música de varias partes, usan de otro silvo mayor, que está naturalmente en tono de Capilla, y entonces, este hace la segunda voz (...) si se toca en sitios cerrados, entonces (sustituye al tamboril) una especie de salterio cuadrilongo con seis cuerdas (el tambor de los franceses) a que llaman Chunchun (sic) (Donostia 1994: 1535)<sup>37</sup>.

Tresna-bikotea Musika landuan sartzeak aurreko tradizioarekin haustea ekarri zuen: txilibituaren eskala laburreko eredia alboratuta, goiko erregistroan nota berriak irabazi eta, beldurrik gabe, kromatismoaren biderei ekin zitzaion errepertorioetan, non azken modako doinuak ugaltu egin ziren. Antzinako musika modalerako joera zabaldua tankera tonalera lerratu zen eta bestetik — familia bereko beste hainbatetik bereiziko zuen ezaugarria— tonuerdiko interbaloa lehenengo eta bigarren zuloen arteko irekieran kokatu zen. Txilibitua tresna transpositoretzat<sup>38</sup> hartzeko aukera ere urte hauetakoa da eta gure egunetaraino mantendu da. Flauta handiago eta soinu baxuagoaren agerpena, *silbotea*, eta taldekako joaldiak garai honetan sortu zirela ziurtatzen digu testuak. Horregatik zilegi da suposatzea Txistulari Talde Tradizionalaren hazia ere (bi txistu, txistu handia edo *silbotea* eta atabala) inguru honetan jaio zela.

<sup>36</sup> Iztuetarentzat, usadiozko danbolin deituraren aldean, erdeinuzko izena da hau. Flauta jotzen bai, baina erritmoa eramaten eta dantzarako jotzen ez dakiten seinale.

<sup>37</sup> Wilhelm von Humboldt antropologo eta hizkuntzalariari 1802 urtearen inguruan bidalitako txostenetik hartua da: De la música del país vascongado. Aita Donostiaren kantu-bildumaren hirugarren tomoaren eranskin gisan argitaratu zen (Donostia 1994). Ilustratu batek egina dela ez da dudarik. Nire ustez, Jose Antonio Egia izan zitekeen (Ansorena 2014: 10, azpiko 9. oharrean).

<sup>38</sup> Ez da ohikoena familia bereko beste lekuetakoen artean. Txosten honen arabera txilibitu horiek, egungo hizkeran, Sol afinazioa zuten; honek berretsi egiten du Iztuetaren tamainari buruzko baieztapena.



*Danbolina* mendeetan barrena esan izan zaio danbolin-tresnarekin batera txilibitua-edo jotzen duenari. Egun, XIX mendearen hondarrean hasitako ohiturarengatik, *txistu* esaten zaio flautari eta *txistulari* jotzaileari. *Danbolintero* edo *Ttuntunero* eta hamaika aldaera txiki ere mantentzen dira, baina ez dute lehenagoko indarrik.

### Iztueta danbolinzale eta deitoratzaile

Iztueta danbolinzalea zen. Argi geratzen da tresnari eta jotzaileei eskainitako arretan eta bizitzan izandako adiskide danbolinen zerrendan. Hala ere, obraren hasieratik danbolinak jotzen ditu gipuzkoar dantza zaharren egoera hil-hurrenaren errudun. Ez, ordea, berak maite dituen erakoak, baizik-eta lege berriaren harikoak eta, batez ere, modu zaharreko doinu eta dantzak harrokiro baztertzen dituztenak.

Pedro Albénizek eta Manuel Larrartek prestatu zituzten Iztuetaren obrarako doinuen partiturak (Ansorena 1995). Humboldti bidalitako txostenean agertzen direnekin alderatuz gero, bi kontu geratzen dira nabarmen. Batetik, Iztuetak zehaztu bezala, soinu zaharrak ezagunak zirela oraindik, baina ia ahaztuta zeudela. Eta hor jasotzen direnek (*San Sebastian, Ehun Dukatekoa, Napartxo*) antz handia dutela Iztuetaren bildumakoekin:

*Todas estas canciones particulares tienen un carácter igual; son aires sin modulaciones ni variedad y no guardan un orden fijo en la extensión de períodos: parece que han sido hechas, unas a imitación de otras, y cada una para un caso particular. Antiguamente se bailaban, como en el día, están quasi absolutamente olvidadas.* (Donostia 1994: 1524)

Bestetik, Iztuetak umorez idatzi bezala, jasotzen diren estilo berriko zortziko eta kontrapas gehienak italiar modaren imitazio zozoa direla antzematen da berehala:

Danbolin hoek beren eginkizun guzietan, ematen diote, jaioterriko soinu gogoangarriak urruindaturik, erbesteetako nahaspilatuak jotzeari (...) non hasiko duten Inglaterrako minue edo mindue, eta bukatuko dute, Frantziako balsakin edo hatsakin. Hoek eta okerreko dantza Turkiakoekin soinuak dirade, oraingo danbolinak darabiltzatenak gora eta behera, atzera ta aurrera, zeharka ta saiheska, zuzenka ta okerka, amilka ta zilipurdika, eta, nork daki nola? (Iztueta 1990: 106).

Horren inguruko jarrera pertsonalak ziren liskar-sortzaileak: bazegoen tartean prestigio soziala eta diru-irabazia. Udal handiak danbolin ikasiak kontratatzen hasi ziren, baita auzoetako jendeak ere, modako doinuak jotzea nahi zutelako. Danbolin ikasien arteko batzuk harrosko agertzen omen ziren, lege zaharrekoak mespretxatuz. Horien hainbat adibide aipatzen ditu Iztuetak: Hilariorena, garbiena. Beste batzuek, ikasiak izan arren, ez zioten muzinik egiten lehenagoko musikari; eta horretan gailenena *Bixente danbolina* zen,



Bizente Iburguren, famatua izandako jotzailea. Pedro Latierro, jotzaile bikaina omen zena, epelago ikusten zuen. Baina ez du danbolin ikasien aurkako grina txarrik; dantza eta kanta zaharrak baztertzea, horixe ez du onartzen:

Ez det esaten nik, ez eta nahi ere esan, gauza ona eta haundia egin eztutela danbolin hoek txilibitua hotsakindan jarrea, eta berarekin soinu berriak jotzea; baizikan diot, eta jardungo det ere, guziz dala kaltarkitsua euskaldunentzat, dantza oniritzi hoen soinu garbi txit ezagunak arras ahienaturik, osotora ahaztutzen uztea (Iztueta 1990: 101).

Iztuetak ondo asmatu zuen herri-olgetaren gaitzaren sintomak zehatz-mehatz deskribatzen. Baina ez zuen asmatu diagnostikoa egiten, gaixotasuna non zegoen esaten. Ez baitziren danbolinak aldaketaren eragileak: gizartea aldatuta zegoen eta atzera bueltarik ez zegoen. Pablo Gorosabel kronikagileak, nahiz eta egoera deskribatzen bat zetorren, argi gehiago izan zuen; ziur aski, dantzariak bezainbesteko lotura emozionala ez zuelako dantza zaharrekin:

*Iztueta atribuye la decadencia de los bailes antiguos del país a los tamborileros músicos, a quienes dice repugna mucho tocar las sonatas correspondientes a los mismos, por considerarlas de mal gusto y de peor composición. No me parece que semejante opinión sea muy fundada, ni que dicho escritor fuese justo en la manera dura con que trata a los tamborileros músicos de su día. Creo sí que esto ha procedido de los adelantos que ha hecho el arte de bailar, de la variación de los gustos y modas, del cambio de costumbres y del modo de vivir; más bien que de la causa a que atribuye Iztueta. Laudable es ciertamente el celo de los que desean conservar la memoria de las cosas y costumbres antiguas, señaladamente de las que tienen una significación de importancia. Pero hay que reconocer al mismo tiempo que la música y bailes no pueden estacionarse, sino que han de caminar al compás de las circunstancias de las respectivas épocas, que modifican todo lo pasado, y que así los tamborileros no han hecho más que seguir el torrente del siglo. Estas mismas danzas populares, que se denominan antiguas, habrán tenido probablemente algunas variaciones o modificaciones. Su gravedad, majestuosidad y la decencia con que se usan, indican cierto grado de civilización o cultura de modales, que por cierto no se aviene bien con la rudeza de los primeros siglos de que se las quiere hacer derivar. Para prueba de esta mi opinión, haré una observación general, que parece viene a confirmarla. Antiguamente era cosa muy frecuente el que los caballeros principales de la provincia, así que sus señoras, saliesen a las plazas públicas de los pueblos a bailar en las diferentes clases de las citadas danzas ¿por qué no lo hacen en el día, a lo menos en pueblos de alguna consideración, a pesar de que en alguna ocasión particular haya tales bailes con sus correspondientes sonatas? No sin duda por otra causa, sino porque la afición, el gusto y las costumbres se han reformado de una manera bastante radical. Ha dependido esto principalmente de las invasiones francesas de los años de 1794, 1807 y 1823, cuyos ejércitos introdujeron en España, y en particular en esta provincia, los valeses, contradanzas, rigodones, etc. A estos mismos bailes va sucediendo generalmente lo que a los antiguos de esta provincia en particular, pues han venido otros*

*que los dejan en atraso y fuera de uso, como son los galops, mazurcas, polkas, lanceros, schottish, redowas y otros (Gorosabel 1900 II: 431-423.).*

## EUSKARA ETA IDAZKERA: MUGAK ETA EDERRAK

Ondo dakigu, testigantza ugariengatik, Juan Ignazio Iztueta euskaldun osoa zela eta jario berezia zuela, baita idazle jasotzat eman zutela bere garaikide gehienek ere. Erreparatzea besterik ez dago jasotako eskutizetan nola onartzen zaion hori eta adiskideek zenbatetan eskatzen dizkioten beren lanetarako zuzenketak edo aholkuak<sup>39</sup> (Garmendia 1968). Baina, berak hainbatetan aitortu bezala, ez zuen inongo unibertsitatetan ikasi. Gaztetan ikasitako apurra irakurzaletasunak eta adiskide jakintsuen hizketak handitu zion era autodidaktikoan. Haatik, ez du estima handirik izan gure literatura arakatu dutenen artean. Kontu asko gaitzetsi zaizkio: idaztean hainbat euskalkiren nahasketa burugabea, oso sintaxis arrotza eta neologismo gehiegi erabiltzen dituela, hainbeste izenondok irakurketa oztopatu egiten dutela... Baina izenondoan ugaritasunak garaiko ohiturei erantzuten die, euskarazko zein erdarazko beste idazleek ere horrelaxe egiten baitzuten. Aita Larramendiren hiztegia etengabe eta sinesmen itsuaz begiratzen zuela antzematen da, alferrikako erdarakadarik ez jartzeagatik. Batera, testuak maiz ulergaitzak geratzen zirela konturatuta, herriak benetan erabilitako sinonimo erdalduna ere sarri jartzen zuen. Esaldi luzeegiak eta erlatiboak joserik aspergarriak ere leporatu zaizkio. Ezin ahaztu, ordea, horiek normalak zirela hizketan ere garai haietan<sup>40</sup> eta, euskaltzaletasun-abertzaletasun garbizalearen ondorioz, XX. mendearen hasieratik aurrera gerra egin zaiela, gure begirada lausotuta utzirik. Baina Axular beraren izkribuetan ere erruz aurkitzen dira.

Euskalki desberdinen osagaiak erabiltzeari dagokionez, uste dut nahita aritu zela. Merkatari-bizitzan hainbeste mugitu eta euskalkien ezagueraz zuzenez, *gipuzkera osatu*<sup>41</sup> modukoa egin nahi izan zuela. Euskaldun guztientzat era ulergarrian idaztea zuen helburu. Iztuetak, euskara hain maiseatuta zegoen giroan, erakutsi nahi zuen bazela hizkuntza jaso, eta egokia zela historiaz,

<sup>39</sup> Euskaldun on hauek idatzitako gehienak gaztelaniaz daude, euskarazko esaldi labur batzuk tartekatuta batzuetan. Garaiko euskara idatziaren arazoa agerian jartzen dute: euskaldun jatorrek ere ez zekiten nola txukun idatzi. Agustin Iturriagak bidalitakoetan, hasierako urteetan euskaraz jardun ziren eta, aldiz, azkenekoetan gaztelaniaz. Harrigarri gertatzen zait eta ez naiz arrazoiak zein izan daitekeen ulertzeri iritsi. Blanca Urgellen (Urgell 2018) *Lehen euskara modernoa* argitalpen ederrean, agirian jartzen da Iztuetaren inguruan euskara idatziaren aldeko talde bat bazela.

<sup>40</sup> Tere Irastortza idazle zaldibiarrek haxe aipatu zidan: «Gure amak Iztuetanetik jasota buruz zekizkien erromatarren aurka borrokan sortu ziren bertsoak. Baserrian bazuten liburua eta irakurtzen zuten, eta ulertzen, eskola handikoak izan gabe, esaldi oso luzeak izan arren. Iztuetari egindako omenaldian, Zaldibiari buruz esaten ziren kontuak herriko hainbat tokitan irakurri ziren, ozenki, herritarren aurrean eta herritarrek irakurle, eta inork ez zuen esan ulertzen ez zenik » (Elkarren arteko mezua 2019-08-09).

<sup>41</sup> Resurrección M<sup>a</sup> Azkuek euskara batzeko zuen asmoa. Gipuzkeran oinarri hartuta, beste euskalkien ekarpenez osatu. Ez zuen aurrera egin.

antropologiaz, soziologiaz eta goi-mailako kontuez jarduteko. Eta asmo horretan garaiko gaztelaniaren estiloa imitatu zuen. Maiz, baina, berezko sena, gatza eta malezia irteten zaizkio borborka; eta irakurleari, atsegin emateaz gainera, barre gaiztoa ere eginarazten dio. Benetako perlak idatzi zituen horrela, bereziki deskripzio ozpinduetan edo herriko hizketa-modua jasotzen zuenean:

Beragatik, atera ohi dirade ilun alderontz, beren arpegiak garbitzen ongi ikasi gabeko hiru edo lau mutil zirtzil, beste hainbeste neska moldakaitzekin, plaza agirikora: non ohi dabiltzan itzulamilka, nazkagarrizko lotsagabekeriak baizik egiten ez dutela; zeinean, ezin legokean inor berai begira, txit damurriaturik guziz engurrutu gabe. Baina ez oraindik ere honela, herri txikietan (Iztueta 1990: 91).

Aizak, aizak mutil, begira begira horrakotaino horri, gazta Flandeskoa zirudik horren buruak. Erantzungo dio besteak: Mamelukoren bat zala uste nikan nik. Hark esango du: Arrainea!, nondik atera ote du kasaka modako hori? Lebita bat egingo nitek horren hegalakin. Honek, Karanba! Zer txapela daukan etxe bati teilatua emateko. Besteren batek oju egingo du: karail, hori zapata dauka! Horrenbesteko barku batekin joango nindukek Amerikara (Iztueta 1990:93).

Idazleak polemikaren erdian kokatu zuen bere burua, euskararen aurka aritzen zirenei erantzunez:

Jakinduriaren bila erbesteetan urteak igarorik, joan ziradenean hainbatekin, edo gutxiagorekin, jaioterrira biribilatu ohi diraden uhanditu hoen galanteorik haundiena da, etxera sartu bezain laister, beren guraso eta senidai esatea ezik, *Eh, callad, no habléis más esa gerigonza propia sola de salvages ó de un rancho de gitanos: vergüenza he que me conozcan por el acento los castellanos, que yo también soi de turriz aburnis.*

Eta oraindik are ikusgarriagoak eta adigarriagoak dirade hoen guraso eta senide txoroak, nola egon ohi diraden beren auzoetakoai esanaz, *Gure seme kanpoetan genduenan bart etorri zaiku etxera, txit galanturik, osasunarekin eta guztiz jakinduria haundiakikoa. Ahaztu zaio bada euskera guzi guzia: ez du hiztxo bat bakarra ere ez, esaten, eta ez endeglatzen edo konprenditzen hitzkuntza honetan. Eta are gutxiago nahi du bestek hitzegitea ere. Beragatik, baldin harekin nahi badezute hitz egin, erderaz beharko diozkatzute adierazi zuen esakariak, nolabait bederik, bestela haserratuko zaio, portizkiro hala ere* (Iztueta 1990: 95-96).

Horregatik aipatu beharreko lehen ezaugarria hauxe da: euskaraz egiten du euskararen gorapamena. Ez zuen Joan Clavería apaizak (Klaveria 1975) 1636an idatzitakoa berari egozte nahi:

Burlatzen naiz Garibaiez

bai halaber Etxabez

zeinak mintzatu baitire  
 erdaraz eskaldunez  
 Ezen zirenez geroztik  
 eskaldunak hek biak  
 eskaraz behar zituzten  
 egin bere historiak.

Zoritzarrez, jokabide hori oso normala baitzen eta egunotan ere bada euskaldunen artean. Euskararen kezka harrapatuta zegoela, ekimen askotan izan zen partaide adiskideekin, Agustin Iturriagarekin izandako eskutitz-trukean ikusten denez (Garmendia, 1968. 166-196). Adibidez, lan deigarria agertu zen bere eskuz idatzitakoen artean: *Trabajo sobre el método que se debiera seguir en las Escuelas de Primera Enseñanza de esta región, para enseñar el castellano* izenburukoa (Garmendia 1968: 109-115). Ez dakigu berak edo Iturriagak sortua den, edo bien artean egina, baina harrigarriak gertatzen dira ideien zehazpena eta argitasuna, baita modernitatea ere.

Bertso idatzietan trebezia zuela ez da dudarik; horren adibide da *Kontxesirentzat* sailak herriaren memorian irabazitako lekua. Bat-batekoen inguruan ez dugu daturik. Soinu zaharretarako, zentsurak behartuta, idatzi behar izan zituenetan, ez da baliozkorik. Doinuen tankerak eta inposatutako garbitasunak muga jarri zioten. Bada hauetan inork egin beharreko azterketa: zein bertso diren berak jarritakoak eta zein herriarenak. Batzuetan aise antzematen da, dena den, herriak kantatzen zuena egokitu zuela edo hortik abiatu zela sortze-lanean.

## IZTUETAREN DANTZEN BILDUMA: MUSIKA

Iztuetak eta Albénizek utzitako partitura-bilduma alderdi askotatik da interesgarria eta, antzinako euskal herri-musikaren testigantza zuzena denez, oso urrutira garamatza. XIX. mendearen hasieran, soinu horiek galduta edo erdi galduta zeuden. Jaso ahal izateko, dantzari zahar batzuk bildu zituen Iztuetak, eta hauek kantatu zutena eraman zuten paperera Manuel Larrartek eta Pedro Albénizek. 1700 urtearen inguruan bizi-bizirik zegoen herri-musika da haien bitartez jasotakoa; baina jatorria, zenbait kasutan, lehenagokoa da.

Larrartek eta Albénizek, nola banatu zuten ez dakigun arren, oso modu txukunean egin zuten transkribapen-lana. Ez da harritzekoa; biak ala biak ziren-eta maila altuko musikariak, euren biografiek erakusten dutenez; oso langileak. Urte luzeetan ez dira partitura horiek entenditu. Ez dut hemen beste leku batean argitaratutakoa errepikatuko (Ansorena 1995), baina bat da ideia nagusia. Modu bakarra dago bilduma ondo ulertzeko: danbolintero zaharren egitura musikalen ikuspuntutik begiratzea. Nahiz eta doinu guztiak ez diren garai berekoak, garbi antzematen da musika modalean dutela oinarria askok, eta tonalitatearen eta temperamentuaren zentzua garai haietako euskal belarrietatik urruti samar zegoela.

Doinu hauek jotzeko moduak Barroko iberikoaren estiloa eskatzen du; apaindurek ere tankeratsu horretan eginik hartzen baitute zentzu osoa. Berriki Juan Antonio Urbeltzek argitara eman duen liburuan<sup>42</sup> (Urbeltz 2018: 254) honela dio: hainbat soinu zaharren amaieran agertzen den kadentzia bat Césare Negri Errenazimenduko dantzari eta musikariaren obratxo batetik kopiatua dela. Ez da horrelakorik, ordea. Hasteko, Iztuetarenean azaltzen direnak eta Negriren adibidekoa ez dira berdinak. Gainera, kadentzia hori garaietako liburuetan agertzen ziren *eredu* deitutakoetan kokatzen da, eta doinu askotako amaierak egiteko erabiltzen zen, noski. Horregatik, soinu zahar hainbatetan ez ezik, *jauzi* eta *mutil dantza* batzuetan ere entzuten da. Gehienez ere, *eredu* horren erabilerak doinuen antzinako jatorria bermatzen du.

## LANAREN SINESGARRITASUNA ETA GIPUZKOAKO DANTZAK LANAREN BALIOA

### Topikoak

Iztuetaren bizitzari buruzko datu ugariak ditugu, biografian agertu bezala. Baina bizi izan zituen garaietako nahasmenak begirada asko uhertu ditu eta dantzariaren inguruko topikoak erruz zabaldu dira urteetan. Maiz aurreiritzi horiek errealitatea ukatzeraz ere eraman izan dute hainbat. Eta etengabe susmo gaiztoak zabaltzera. Horrekin badu zerikusia ikertzaile nagusiak lege zaharreko apaizak izatea: Garmendia eta Tellechea. Elóseguik ere, apaiza ez izan arren, aurrejuzguz kutsatutako aipamen ugari idatzi zituen, jasotako datu dokumentalen ondoan. Latzena, artikulua baten amaieran (1976-1): Donostian 1813ko abuztuaren 31ko sarraskiaren erantzule badirela Iztueta eta bere sokako beste batzuk, ongi argitu gabe zer esan nahi zuen.

Iztueta *polifazetiko*a zela askotan esan izan da: ez da jaio, ordea, fazeta asko ez duen pertsonarik. Iztueta lanbidez merkatari izan zen, eta zaletasunez dantzari, bertso-jartzaile eta idazlea. Zaletasun hauek dirutxo batzuk irabazteko aukera eman zioten hainbatetan, noski. Urte gutxi batzuetan maisu ere aritu zen herrian. Horrela ibili behar izaten zuten, garai haietan, lurrari lotutako nekazari ez ziren guztiek. Nik ezagututako txistulari zaharrek ere (Bonifazio Laskurain, Migel Martinez de Lezea, Isidro Ansorena...) horrelaxe egiten zuten: Udaletxe bateko lanpostua lortu eta herri horretara joaten ziren, soldata finko txiki horren amoregatik. Eta, txistua jotzen ez ezik, beste lanbideren batean ere aritzen ziren: igeltsero, zapatagin, jostun... Egun ere ez da harrigarria.

Gaizkilea eta bidelapurra izan zela; haur bat akabatu zuela; gezurra erabiltzen duela bere burua zuritzeko; kopiatu egin zuela liburu honen parterrik handiena eta, hori ezkutatzeko, desagerrarazi egin zuela jatorrizko kopia; ez zuela berezko ideologiarik baizik-eta, *Txuri* izengotiak agerian uzten duenez, boteretsuak lausengatu egiten zituela, errenta onak lortzeko; psikopata zela...

<sup>42</sup> Urbeltzen liburu osoa fantasiakoa dela esan liteke. Baina puntu hau, hedabideetan aurkikuntza gisan nahikoa zabaldu delako, zehaztea komeni da.

Hori dena eta gehiago idatzi da liburu ustez zentzuzko eta kultuetan. Besteak beste, epaileen aurreko testigantzak egiazat eman izan direlako, nahiz eta jakina den lekukoek egokiera horiek baliatzen zituztela etsaiak laidotzeko eta beren buruak zurrizteko. Tellechea Idigoras jakintsuak, 1827an Donostian gertatutako liskar baten txostena argitaratzean<sup>43</sup>, hauxe dio:

Queda patente, de paso, que la delación era lacra y moneda corriente de la «década ominosa», aunque no fuese fruto privativo de aquellos años ni de sólo una especie de denunciantes (Tellechea 1984: 31)<sup>44</sup>.

Bide berekoak ikus daitezke hamaika auzitan, bereziki Inkisizioa tartean bazegoen, *Akelarre* famatuen kasuan bezala (Azurmendi 1993: 201-252).

Liburuaren jatorrizko kopia berak desagertu izana ere hainbatek leporatu dio Iztuetari, inongo probarik gabe. Aurrejuzguen eragina izan behar du: zenbat dokumentu eta liburu ez dira ba Gipuzkoako artxiboetatik desagertu garaitu horietan? Bere iragana ezkututzen duenik ez da topatzen Iztuetaren idatzietan. Alderantziz, hainbatetan aitortzen du bera ere nola ibili den, Kontxesiren azken bertsoan bezala, ironiaz gainera:

Ez degu pasatzen pena gutxi,  
preso sei urtez!

Onduko gaituzte nire ustez (Ansorena 1993: 91).

Lo que digo a Umd. es que en la plaza pública se debe andar alegre pero con modestia. No es la plaza para ejecutar acciones indecentes como suelen hacerlo a menudo. No sé yo qué gusto encuentran algunos haizeburus en una publicidad zirri hortik eta zirri hemendik. Yo he sido hombre de mundo como los demás, pero en el público jamás he tomado la libertad de hacer a ninguna mujer la menor gestión indecente.

*Los halagos tienen fuerza y estimación en otros parajes y no en la plaza* (Lorenzo de Alzateri eskutitza. Elósegui 1969: 197).

Horretan adimen argia erakutsi zuen; Gipuzkoa txikian —120.000 biztanle inguru zituen garai hartan— alferrikakoa baitzen horren pertsona ezagunaren bizitzako gorabeherak ezkututzen saiatzea. Aurreiritziek blaitutako begirada hori hamaika kontutan ikus daiteke.

Jose Garmendiak, Iztuetaren obraren aztertzaile saiatuak, hau idatzi zuen:

Jarraitzen du esanez: «nunca podrían entonarse con más oportunidad los himnos de triunfo inspirados a los Antiguos Bascongados (...) y que nunca resonarán en nuestros profundos y risueños valles las cantinelas amorosas (...)».

<sup>43</sup> Hain zuzen ere, Pedro Albéniz dago lekukoaren artean.

<sup>44</sup> Tellecheak, baina, ez zion hau Iztuetarekiko bere begiradari atxiki.

Hemen dabil Iztueta «Txuria» (...) eta gezurra edo guztiz egia ez diren kontu artean (...). Konposizio hauen letrak aztertzen baditugu, (...). Non dira gerra kantak, abesti gehienak amodiozkoak baitira? (Garmendia 1995: 80).

*Kantabriako Martxa, Ezpata dantza, Pordoi dantza* eta abar dira Iztuetarentzat gerra-doinuak. Eta amodio-kantak beste asko. Non dago gezurra? Inon ez.

Elósegui bestea hau idatzi zuen: «Tema es, éste, de los precoces e irregulares nacimientos, que vemos frecuentemente repetirse en los Iztueta y sus allegados» (Elósegui 1969: 141). Baina lehenago argitu dugunez eta Iztuetak berak kontatzen duenez, gizarte osoan zen arazo:

Baldin gertatzen bada inoiz langile prestu hoen arteko seme-alabaren batzuk, alkarganako duten amodiozko nahitasunaren bidez gaztelimuriturik, behar ez litzakean aztaporen batean irristatuta erorta (...). Beragatik, eta izendatu dedan moduko bileraetan behin baino gehiagotan nerau izan naizalako, ezarri nahi izan det Gipuzkoatarren ohitura gozo hau hain luze ta zeharo (Iztueta 1969:167-168).

Bada, Iztuetaren paperen artean, gaztelaniazko bertso-sail bat, *Una docena de banderillas de fuego para el compadre Legarda*, oso interpretazio bihurriak izan dituen.<sup>45</sup>

(...) Yo sé los secretos

De sus intereses,

Y sé que se engañan

Recíprocamente.

(...) Soy el primerito

Si Collado escribe

Que leo sus cartas

Y sé lo que pide.

Ezin jakin dezakegu, baina, Iztuetak sortuak diren bertso horiek. Haren eskuzko kopia dela, besterik ez dakigu. Badugu, ordea, Collado eta Legarda horien berri. Beste hainbatekin batera, *La Balandra*, *Sociedad Patriótica de San Sebastián*<sup>46</sup> izeneko presio-talde edo, egungo eran esanda, *lobby* liberal donostiar bateko partaide nagusiak ziren. Ideia liberalekin batera, negozio handi eta ez erabat garbietarako abilezia erakutsi zuten. Iztuetak eurekin harremanak izan behar zituen tratuetan<sup>47</sup>, baina ez zetorren bat hauen amarrukerietan. Eta

<sup>45</sup> Urbeltz 2018: 33-35.

<sup>46</sup> Esteban y Bermejo 2015: 25-29.

<sup>47</sup> Collado honen ale bat bada eskutitzen bilduman (Garmendia 1968: 160). Madriletik bidalia da, tonu ofizialean Iztuetaren eskaera bati ezezkua emanez.



publikoan ezin agertu zezaketena, oso erabiliak ziren horrelakoak, era pribatuko bileretan barre-algarak eragiteko (Madariaga 2003: 347-349). Adibide bakarra jartzearen, badakigu Félix M<sup>a</sup> Samaniegok —Iztuetaren garaikidea hau ere, eta nire belaunaldikoek txikitandik idazle moralizatzaileen artean ikasi behar izan genuena—, bertso erotiko-pornografikoen bilduma zoragarria zuela horrelako aukerretarako sortua:

(...) sin duda, más goza Samaniego en otras reuniones informales de amigos, donde se habla de lo divino y humano, libres de la presiones sociales y donde todo tiene cabida: las críticas a la religión y los chistes ligeros y aun obscenos junto a un buen vaso de vino (...) por esta época (...1792...) debió comenzar a escribir sus cuentos verdes (...). Pero algún timorato debió acusar a Samaniego a la Inquisición (...) el año 1793 se vio involucrado en un largo y difícil proceso inquisitorial (...). Tuvo que (...) solicitar el favor de su amigo, el ministro de Gracia y Justicia (...). Todo se quedó en un mal susto. Una vez más la podrida Inquisición había retrocedido ante las influencias (Samaniego 1976: 12-16.).

Iztuetak ez zuen horren zorte ona izan, gaztetan ez baitzuen goi-mailako ezagunik. Eta zorte bera falta izan zaio ikertzaile gehienek bere bizitzari emandako epaiketetan ere; aise zigortu dute-eta tankera guztietako adjektibo ezkorrekin.

### Datuak hotzean

Iztuetaren datu biografikoak eta hark utzitako idazkiak ere xehe-mehe eta aurreiritzirik gabe aztertuta, ez da haren irudi bereziki txarrik azaltzen, ondorengo baizik. XVIII. mendeko azken urte korapilatsuetan, gizon bizkor, azkar eta berezia suertatu zen Juan Ignazio Iztueta, Gipuzkoan. Lekukotzak bat datoz honetan: umore onekoa zela, gaztetan zein zaharretan, egoera lasaietan eta egoera garratzetan ere. Hainbatetan errepikatzen den kontua da. Agustín Iturriagak ere honela dio eskutitz batean: «Veo que mantiene Ud. el humor de siempre, bendito sea Ud. e imitado por todos siendo envidiable su jovialidad en esa edad» (Garmendia 1968:190).

Gazte-gaztetatik euskal dantzekiko zaletasun handia izanik, hauek ezagutzeko, ikasteko eta maitatzeko aukera izan zuen, Zaldibian eta Goierriko beste herrietan, Ordizian bereziki. Bertsolarien artean ere ezaguna eta babestua izan zen. Honek, aldiz, ez zion estima handirik ekarri jauntxo erlijioso eta laikoen artean; kontrako eta euren kontrolatik kanpo geratzen ziren esparruak zirelako. Ezin ahaztu, bestalde, *akelarreen* epaitegietan deskribatutakoa: dantzariak eta danbolinak zirela errudunik handienak. Emakumeen artean ongi hartua izaten zen Iztueta, eta berak ere atseginez hartzen zituen emakumeak. Ez omen zen mozkortia, baina ezaugarri hori ere salatzeke erabili zen Logroñoeko epaiketetan: «no veía vino si no era algo poco de generoso» (Tellechea 1999: 272). Alegia, hark esandakoak ez zirela ardoaren erangipekoak izan, baizik eta era konszientean ari zela blasfematzen.

Gaztetan, topaketa gogorra izan zuen Zaldibiako erretorearekin eta honek irudikatzen zuen jauntxoaren boterearekin. Eta herriaren erdia, udal kontzejua tartean, Iztuetaren alde agertu zen, beste erdia erretorearekin lerrokatu zelarik. Alde honetakoek esaten zioten *Txuri*. Horren ondorioz, salatua izan zen, inbidia eta mendekuak garaituta, petxero gertatu, baita espetxera zigortua ere. Hiru aldiz ezkondu zen. Lehenengo emaztearen bizitzako azken urteetan, arazoak izan zituzten elkarren artean. Gero, beste bi aldiz ezkondu zen. Azkeneko emaztea, *Axentxi*, bera baino berrogei urte gazteagoa zen. Ondo moldatu zen bi emazte hauekin. Denak emakume ederrak izan ziren oso. Seme-alabekin ere harreman onak izan zituen eta ongi artatu zituen, baita hauek bera ere zaharretan. Eskutizetan ere ikusten da seme-alabei dantzan erakutsi zuela.

Badakigu adiskide on ugari izan zuela eta ez maila eskasekoak: Juan Inazio Zabala eta Fernando Bengoetxea *Amezketarra* bertsolariak; Jose Ramon de Elorza, Azkoitiko erretorea, pobreen defendatzaile sutsua; Santiago de Unzeta Ahaldu nagusia; Juan Bautista Arrizabalaga Diputazioko idazkaria; Toulouseko Unibertsitateko irakasle Mr. Lécluse euskaltzalea; Juan Bautista de Erro jakintsu eta politikaria; Jose Paulo Ullibarri arabar euskaltzale eta politikaria; Agustin Iturriaga apaiz pedagogo; Pedro Albéniz eta Manuel Larrarte, biak kategoria handiko musikariak; Luis Astigarraga, Segurako jakintsu euskaltzalea; Frantzisko Ignazio Lardizabal apaiz idazlea... Elkarrekiko lanetan eta gurutzatutako eskutizetan ikusten da nolako estiman zuten hauek eta beste hainbatek, baita adiskidetasunari eutsi ziotela urte luzez ere. Azpimarragarria da apaiz hainbatekin izandako harreman estua eta hauek denak zein tankerakoak ziren: behartsuen aldeko lanean nabarmenduak eta euskaltzaleak. Iturriaga adiskide mamiarekin izandako eskutiz-trukean agertzen den esaldi batek agirian uzten du bien arteko konplizitatea, modernitate handiko moldeaz: «Ez inori gaitzik egin, on egin guztiai, horra nire lege guztia, horra egiazko erlijioa dio Jesukristok » (Garmendia 1969: 174). Esaldi honek, publiko handiari zabalduz gero, inor Inkisizioaren aurrera eraman lezake jarrera *heretikoarengatik*.

## Sinesgarritasuna

Hainbat xehetasunek bermatzen dute Iztuetaren liburuan jasotako datuen fidagarritasuna. Batetik, datu eta baieztapen anitzetan, parte-hartzaileen izen-abizenak jartzen ditu, non eta noiz gertatu ziren zehaztapen handiz. Horietako asko pertsona oso ezagunak ziren. Inork ez zuen bere garaian horren inguruko susmo txarrik edo kezurik egin, nahiz eta liburua oso zabaldu zen. Bertsolarien demak noiz izan ziren ere ongi zehazten ditu. Dantzen ohitura-aldaketak noiz hasi ziren —1790aren inguruan— bat dator<sup>48</sup> beste iturriekin. Ez hori bakarrik.

<sup>48</sup> Adibide bakarra jartzearen, hona hemen Iñaki Zabaleta Gorrotxategik jasotako lekukotasun bat, *Wilhelm von Humboldt eta Euskal Herria* liburuan. Humboldt antropologo alemaniarraren hitzak dira: »Deskribatu berri dugun caricadantzan, egiaz, dantza bera baino deigarriagoa da ikustea, bai, nola hori autoritate publikoaren aurrean dantzatzen den (...). Plazan egiten da dantza jendaurrean, hala, klaseen arteko ezberdintasunik gabe, igande eta jai egun guztietan, elkarte osoaren kostura eta ageriko zaintzapean (...). Dantza nazional hauekiko

Santiago de Unzeta diputatuaren eskutitz batean —Iturriagaren beste pare batean ere lan honen inguruko aipamen garbiak egiten dira— honela dio honek soinu zaharrei buruz:

*Veré con mucho gusto (si Ud. envía) la música de nuestros apreciables sueños sarres y aunque no entienda la música, haré que un inteligente me cante para calcular si es cual yo he oído, y sé algunos* (Garmendia 1968. 133-134).

Testuaren barne-koherentzia ere oso altua da. Musikan ere, txundigarria da zer batasun dagoen aipatzen duenaren eta partituretan agertzen denaren artean. Eta soilik Iztuetaren obraren bitartez ezagutzen ziren datu asko (Pepe Antonen berri, Bizente Iburguren danbolinaren Madrilgo txangoa, txistuen tamaina eta afinazioa, emakumezkoen eta bestelako esku-dantzak<sup>49</sup>, Donostiako barrioetan zortzi danbolin aritzen zirela...) erabat konfirmatu dituzte ikerkuntzaren aurrerapenek eta agiri berrien agerpenek. Beste bide batzuetatik iritsitako doinu eta aipamenek (*De la Música del País Vascongado*, Azkue eta Aita Donostiaren kantu-bildumako hainbat, Gorosabel...) datuak xehe-mehe berretsi dituzte.

Hainbat aldiz, aipatu da Iztuetak Gipuzkoako dantzen *Erreforma* egin nahi izan zuela (Bidador 2005: 536. Esteban-Bermejo 2015: 17. Sánchez Equiza 1999). Ez dut nik horrelakorik uste. Erreforma eginda zegoen, ilustratuek eta moda berriek erakarrira. Iztuetaren asmoa, hasieratik aitortu bezala, oso era euskaldunean eta San Ignazioaren antzera, *Kontrarreforma* izendatu beharko litzateke. Uste osoz, dantzen arloan eta hauek zekartzaten harreman sozialetan, iraganera itzuli nahi zuen, garaiko ikuspegiak burutapena irentsigarri egiteko eskatzen zuen garbitasunaren galbahetik pasata<sup>50</sup>. Alde horretatik erromantikoen ildoan kokatu beharko litzateke. Baina dantza berari dagokionez, bestelako egokitzapenik egin gabe. *Ilustratua* ere ez zen: ezinbestean, garaiko umea baitzen, ideia batzuk konpartitzen zituen, hala nola, agintariak inposatuta, dantza zaharren berpizkundera lor litekeela. Ez gehiago. Obraren zehazpen handiak erakusten du Iztuetak ez zituela dantzak aldatu nahi, bai, ordea, oroiminak ukituta, usadio horien bertsiorik onena eman, elkarrekiko bizitzan mesedegarri izan zitezten.

Iztuetaren jokabide politikoari ere aipamen bihurriak egin zaizkio, kameleoi interesatua zela egotzita. Horren frogatzat erabili izan da, besteak beste, afrantsesatu salaketarengatik izan zuen azken epaiketa eta zigorra. Inguruan begiratzea besterik ez dago ohartzeko horrelako zenbat kasu izan ziren. Hala, Iturriagak arrazoi berarengatik Iparraldera ihes egin behar izan zuen; eta Iztueta, merkataria izanik, hamaika tratutan ibilia zen frantsesekin. Aldiz, ikusten da

---

zaletasuna, baina, gutxitzen doa egunetik egunera. Apaizek oihu egiten dute dantzaren aurka, jendea ez doa hainbeste horretara eta ohiturek txarrera egiten dute. Orain ezkutuko dibertimenduak bilatzen dira » (Zabaleta 2017: 93-94 )

<sup>49</sup> Orain gutxi Patxi Larralde frogatu du, ikerketa batean, nola mantendu diren Baztanen XX. mendearen erdira arte, hain zuzen, Iztuetak aipatutako modu asko (Larralde 2016-2017).

<sup>50</sup> Alde honetatik, garaiko danbolin eta antzekoen kontratu eta dokumentuen xehetasunak ikusita, ez da harriztekoa Iztuetaren zehaztasun-gogoia (Lecuona 1963. Tejada 1928. Ezezaguna 1928).

ideien aldetik Iztuetak asmo bertsuei eutsi ziela luzaro, nahiz eta horretarako, euskaldun askoren antzera, aukera desberdinak egin behar izan zituen. Izan ere, euskaltzaleen artean liberalen foruen aurkako jokabide batzuk ikusita, askok egin zuten Fernando VII.aren alde (Artola 2017). Begirada zorrotz bezain argiz, garbi ikusi zuten, nahiz eta Ilustrazioaren eta garai berrien aldetik zetozen zenbait aldaketa interesgarriak eta onuragarriak izan, gorde beharreko elementu asko zegoela desagertzen ari zen aspaldiko altxor kulturallean. Gizarte banatu hartan, ez zegoen erraza bateko eta besteko akats eta bertuteak bereizten. Nahikoa ongi lortu zuen, ordea. Berak euskara, euskal ohiturak eta fueroak defendatu zituen, baita denentzako errespetu eta duintasunez bizitzeko eskubidea ere. Eta, horrexegatik, ausardia izan zuen nagusi eta despota hainbati aurre egiteko ere. Gaztetan horren ondorio lazgarriak ezagututa, eskarmentuak ongi erakutsi zion modu apalagoak erabili behar zituela aurrerantzean baldin eta onik irten nahi bazuen.

Eskutitzetan ere ikusten da zahartzaroan Fernando VII.aren alde egin zuela (Garmendia 1968:156-158). Eta lehen *karlistadan*, 1837an, Zaldibiara joan zela *emigratu* gisan (Elósegui 1969:233), eremu liberaletik ihesi. Hala ere, garaikide askoren antzera eta gerraren kalteak ezagututa, elkarren arteko adiskidetasunaren alde egin zuen. Horregatik, Bergarako besarkadaren ospakizunetan, birritan kolaboratzaile agertu bere dantzari-koadrilarekin.

Oro har, kontuan hartuta zein helburu altruista eta denon intereseko defendatu zituen, zentzu moral onaren jabe zela egingo nuke.

## Obraren balioa

Askoz geroago Antonio Elizalde eta Jose Telletxea *Baztango Mutil dantzekin* edo Faustin Bentaberri *jauziekin* eta maila apalagoetan bezala, Iztueta, ezagutu zituen<sup>51</sup> dantza zahar guztien sistematizazioa egiten saiatu zen eta, bide batez, horien inguruko iritzi asko erregalatu. Ez zuen erabat lortu eta hari solte hainbat geratu zitzaizkion, baina nahikoa lan taxuzkoa atondu zuen. Pertsona praktikoa izanik, ikasle sutsuak eta ongi formatuak ere prestatu zituen (Garmendia 1995: 91-132), bere segida har zezaten. Berak gogorazitako Damon jakintsu atenastarraren esaldia lanaren goiburu bihurtu zuen: «...ezin ganbiatu ditezkeala herriaren soinuak, non eta denbora berean ganbiatzen ez dan herri beraren bizibidea »<sup>52</sup> (Iztueta 1990:101).

Badu berezitasuna. Honela idatzi zidan Joxe Mari Oterminek:

Euskal kultur munduan atzerritarren ekarpena nabarmena izan da, eta gogotik eskertzekoa, noski. Nahiz eta ekarpen hori oso zehatza izan, eta balioduna, atzerritarren ikuspegia beti gertatzen da kanpotik luzatutako begiratua. Iztuetarena ez da horietakoa. Kontatzen duena ez da, egun batean, barreraren atzetik ikusitako zerbait. Ez, plaza asko eta asko bisitatutakoren ezagutza da

<sup>51</sup> Batzuetan soilik aditzez.

<sup>52</sup> Hau Zamakolaren gandik hartu zuen (Garmendia 1995: 57).

Iztuetarena. Ez da «omenka» mintzo ohi diren horietakoa. Areago. Bildu duen guztia berariazko uzta da, eta bere begiez ikusitakoaren ispilu. Bere barneko labean erre den ogiaren parekoa da Iztuetarena. Alderdi hori ez genuke baztertu behar inoiz (Elkarren arteko mezua 2019-07-23).

Iztuetaren bildumari zor diogu, ezbairik gabe, Gipuzkoako dantza zaharren bitartez urte nahasi eta ilun haietako gizartearen garapena ezagutzeko ikuspuntu intrahistorikoa izatea. Eta jasotako altxor horren bitartez oraindik hainbeste euskaldunok atsegin hartu ahal izatea, dantzan edo ikusmiran. Baita, ondare hori oinarri hartuta, hainbeste euskal gaztek etorkizunari dantza pozgarriaz erantzun ahal izatea. Profeta izan zen: *Bizarra urdina, baina txit arina*.

## BIBLIOGRAFIA

- Anguiozar, M. (1930) «El tamboril y sus danzas en el siglo XVIII», Donostia, *Txistulari aldizkaria*, I-15. Euskal Herriko Txistularien Elkarte, 9. Or.
- Ansorena, J. Ig. (1993) *Euskal kantak*. Erein, Donostia.
- Ansorena, J. Ig. (1995) «Iztueta eta Albéniz-en Musika Bilduma», Errenteria, *Txistulari aldizkaria*, 163. Euskal Herriko Txistularien Elkarte.
- Ansorena, J. Ig. (2014) «Txistu y tamboril vascos: origen y pequeña historia», *Txistulari aldizkaria*, 240. Errenteria, Euskal Herriko Txistularien Elkarte, 9-12. or.
- Aranburu, P. J. + Bidegain, M. + Idiakez, A. + Rezola, I. (1992) *Juan Inazio Iztueta (1767-1845)*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Arocena, F. (1930) «Un “auresku” que terminó en danza de espadas», *Txistulari aldizkaria*, I-17. Donostia, Euskal Herriko Txistularien Elkarte, 0-11. or.
- Artola Renedo, A. + Esteban Ochoa de Eribe, J. + Ulibarri Orueta, K. (2017) «En torno al pensamiento reaccionario en el País Vasco. El ensueño contrarrevolucionario del herrador José Pablo Ulibarri (1774-1847)», *El desafío de la revolución: reaccionarios, antiliberales y contrarrevolucionarios (siglos XVIII y XIX)*. Granada, Comares editorial, 107-123. or.
- Axular, P. (1643) *Gero* (Después) (1964) Barcelona, Juan Flors editor.
- Azurmendi, M. (1993) *Nombrar, embrujar*, Irun, Alberdania.
- Bagües, J. (1996) «La música vasca en los papeles de Humboldt», *Revista Internacional de Estudios vascos*, 41, 2, 573-582. or.
- Bernal, L. M. (2005). «Libertad y mal gobierno en la sociedad vizcaína del Antiguo Régimen: abusos de poder y resistencia a la autoridad (1650-1808)», *Sancho el Sabio, Euskal kultura eta ikerketa aldizkaria*, 23. Gasteiz, Fundación Sancho el Sabio, 35-62. or.

- Bidador, J. (2005). *Dantzaren erreforma Euskal Herrian*. Bilbo, Bilboko Udala, Kultura eta Euskara Saila.
- Campó Schelotto, D. (2015) «Danza y Educación nobiliaria en el siglo XVIII: el Método de la Escuela de baile en el Real Seminario de Nobles de Madrid», *Revista del Departamento de Historia del Arte y Música de la Universidad del País Vasco*, ARS bilduma, 157-173. or.
- Casanova, G. (1825) *Histoire de ma vie*, 7. *Variaciones del fandango español*, *Andreas Staier* diskoaren liburuskan aipatua (1999). Hamburg, Germany, Teldec Classics International GMBH.
- Castelo Ruano, R. (1990). «Aproximación a la danza en la antigüedad hispana. Manos entrelazadas», *Espacio, Tiempo y Forma*, Serie II. Historia Antigua, 3. Madrid, Facultad de Geografía e Historia, UNED, 19-42. or.
- Donostia, P. (1983) «Iztueta, la poesía vasca y el *Churripampli*», *Obras Completas*, II. Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca. 311-326.or.
- Donostia, O. (1994). «Papeles de Humboldt», *Cancionero vasco*, III. Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1529-1591. or.
- Echevarría, J. J. Inprimatu gabeko paper sorta. Cartas de José Javier de Echevarría desde Madrid. Bizkaiko Diputazioaren Artxiboa. Pedro eta José Antonio del Barrioren eskutitzak. *Corregimiento - Legajo 1820-5*.
- Etías Odriozola, I. (1997) *Azpeitia historian zehar*, Donostia, Azpeitiko Udala.
- Etías Odriozola, I. (1999) *Azkoitia historian zehar*, Donostia, Azkoitiko Udala.
- Elósegui, J. (1969). *Juan Ignacio de Iztueta Echeberría (1767-1845)*, Donostia, Auñamendi.
- Elósegui, J. (1971) «Iztueta, preso en Guipúzcoa y Logroño (1801-1807)», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, Cuadernos 1º y 2º, Donostia, 19-46. or.
- Elósegui, J. (1976-1) «Iztueta, afrancesado, procesado por infidencia en Azpeitia», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, Cuadernos 1º y 2º, Donostia, 296-300. or.
- Elósegui, J. (1976-2) «Breves fragmentos de Historia guipuzcoana (II). Gipúzcoa infestada por malhechores», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, Cuadernos 3º y 4º. Donostia, 429-446. or.
- Esteban, J. + Bermejo, D. (2015) «Mucho más que un libro de bailes. Contextualizando socialmente el discurso de *Guipuzcoaco Dantza* (1824)», *Revista Internacional de Estudios Vascos*.
- Ezeizabarrena, M. J. (1990) «Iztueta eta Gipuzkoako dantzak». Iztueta, Juan Inazio, *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia*, Donostia, Euskal editoreen elkarte, 11-34. or.
- Ezezaguna (1928) «Del tiempo viejo», *Txistulari aldizkaria*, I-5. Bilbo, Euskal Herriko Txistularien Elkarte, 12-13. or.



- Ezezaguna (1994) «De la música del país vascongado». Donostia, P. (1994) *Cancionero Vasco*, III. Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1531-1591. or.
- García-Matos Alonao, C. (1996) «Una polémica en torno a las danzas de cuenta y los bailes de cascabel de los siglos XVI y XVIII». *NASSARRE, Revista Aragonesa de Musicología*, XII, 2. 121-134. or.
- Garmendia Arruebarrena, J. (1968) *Obras inéditas de Iztueta*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
- Garmendia Arruebarrena, J. (1995) «Zamakolaren eragina». *Juan Ignazio Iztueta. Dantzarien maisu. Miscelánea*, Zaldibia, Iztueta Fundazioa, 55-61. or.
- Goicoetxea Marcaida, Á. (2006) «Sexualidad y usos amorosos en el cancionero vasco». *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía*. Donostia, Eusko Ikaskuntza, 135-153. or.
- Gorosabel, P. (1899-1900) *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*, Tolosa, E. López.
- Iztueta, Jn. Ig. (1969) *Gipuzkoako probintziaren Kondaira edo Historia*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
- Iztueta, Jn. Ig. (1990) *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia*, Donostia, Euskal editoreen elkarte.
- Klaberia Apeza (1975) *Burlatzen naiz Garibaiez, Euskera aldizkaria*, Donostia, 217. or.
- Larralde Elizalde J. (2016-2017) «Soka dantza en el valle de Baztán», *Txistulari aldizkaria*, 248-249, Errenteria, Euskal Herriko Txistularien Elkarte, 49-52. or.
- Larramendi, M. (1882) *Corografía ó Descripción general de la Muy Noble y Muy Leal provincia de Guipúzcoa*, Barcelona, Imprenta de la Viuda é Hijos de J. Subirana.
- Lecuona, M. (1963) «La provisión de una plaza de txistulari en el siglo XVIII en Tolosa», *Txistulari aldizkaria*, 36. Donostia, Euskal Herriko Txistularien Elkarte, 10-11. or.
- Madariaga Orbea, Jn. (2003) «Los lugares de la sociabilidad en Euskal Herria, siglos XVIII y XIX», Nafarroako Unibertsitate publikoa. Historia-Geografía saila, *Vasconia*. Iruñea, 333-370. or.
- Madariaga Orbea, Jn. (2008) «Apologistas y detractores de la lengua vasca». Donostia, Fundación para el Estudio del Derecho histórico y Autónomo de Vasconia.
- Martínez Gorriaran, C. (1993) *Casa, Provincia, Rey*, Irun, Alberdania.
- Ortega, H. (2018) *Tretatxu, lapurren Gobernadorea*, Donostia, Txertoa.
- Otermin, J. M. (2014) *Fernando Amezketarra. 1764-2014*, Donostia, Auspoa argitaletxea.



- Porro Fernández, C. (2012) «El baile en Castilla y León. La rueda como formación habitual para el baile», *Jentilbaratz. Cuadernos de folklore*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 111- 145. or.
- Sada, J. M. (2002) *Donostiako hiriaren historia bertako pertsonaien bidez*, Irun, Alberdania.
- Sagaseta, A. (1979) «*Danzas y clérigos en Navarra (s. XVIII)*», *Txistulari aldizkaria*, 100. Iruñea, Euskal Herriko Txistularien Elkarte, 5-7. or.
- Samaniego, F. M. (1976) *El jardín de Venus y otros jardines de verde hierba*, Palacios Fernández editore, Madrid, Ediciones Siro.
- Sánchez Equiza, C. (1999) *Del danbolín al silbo. Txistu tamboril y danza vasca en la época de la Ilustración*. Iruñea, Euskal Herriko Txistularien Elkarte.
- Sánchez Equiza, C. (1999) «Juan Ignazio de Iztueta: euskal dantzen erreforma ilustratua». *Musiker, 11. Cuadernos de Música*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 149-158. or.
- Santa Teresa, F. B. (1978) *Euskal-Errijetaco olgüeta, ta dantzeen neurrizcogatz-ozpinduba*, Donostia, Lur-Hordago.
- Tejada, S. (1928) «La romería vasca ha desaparecido», *Txistulari aldizkaria*, I-3, Bilbo, Euskal Herriko Txistularien Elkarte, 9-11. or.
- Tellechea Idigoras J. Ig. (1984) «Nacionales y Realistas. Un episodio donostiarra (1827)», *Boletín de Estudios históricos sobre San Sebastián*, Donosti Grupo Dr. Camino. Obra cultural de la Caja de Ahorros municipal de San Sebastian, 39-114. or.
- Tellechea Idigoras, J. Ig. (1999) «Juan Ignacio de Iztueta ante la Inquisición», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, Donostia, 271-300. or.
- Urbeltz, Jn. A. (2018) *Juan Ignacio de Iztueta y yo*, Donostia, Txertoa.
- Urgell, B. (2018) «Lehen euskara modernoa», *Euskararen historia liburua*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 543-567. or.
- Zabaleta Gorrotxategi, I. (2017) *Wilhem von Humboldt eta Euskal Herria*. Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Zamácola e Iza, Jn A. (1898) *Historia de las Naciones Bascas de una y otra parte del Pirineo septentrional y costas del mar Cantábrico, desde sus primeros pobladores hasta nuestros días: Con la descripción, carácter, fueros, usos, costumbres y leyes de cada uno de los Estados Bascos que hoy existen*, Bilbo, Tipografía de José de Astuy.

